MUSIKENE
Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Ikasketa Amaierako Lana

Valentin Larrea Iturbe (1876-1970) musikariaren lan eta bizitzaren berreskurapen bidean

Izen-deiturak: Ignacio Araquistain Aguirre

Lanaren zuzendaria: Itziar Larrinaga

Espezialitatea: Organoa

Deialdia: zkia., ekaina, 2021

Lanaren karaktere kopurua (espazioak barne): 77.772

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Ikasketa Amaierako Lan hau jatorrizkoa eta nik egina dela adierazten dut, eta ez dela aipatu ez denik iturririk erabili.

Sinadura:

Aurkibidea

Sarrera 1

1 Musikari eskainitako bizitza oparoa 5

1.1 Haurtzaroa Gabirian 5

1.2 Ikasle bizitza Madrilen (1893-1898) 9

1.3 Iruñean finkatu eta ibilbide musikala landu 13

1.3.1 Irakasle fazeta 13

1.3.2 Konposizioa, bere pasioa 15

1.3.3 Aramendia Boskotea 19

1.3.4 Heldutasuna eta errekonozimendua 21

2 Ahanzturan eroria berreskuratzen 25

2.1 Pianorako lana lehen pausutzat 25

2.2 Sokarako lana eta diska 28

2.3 Eresbilen eta Nafarroako artxiboan dohaintzak 31

3 Valentin Larrearen organorako musika 33

3.1 Bere garaiko organoaren baitako mundua 33

3.2 Larrearen organorako piezak 37

Ondorioak 43

Bibliografia eta iturriak 45

Bibliografia 45

Egunkarietako artikuluak 45

Interneteko baliabideak 48

Audio grabazioak 49

Iturri pertsonalak 49

Eranskin dokumentalak 50

Eranskina 1: Egileak eginiko Valentin Larrearen zuhaitz genealogikoa 50

Eranskina 2: Valentin Larrearen musika konposizioen katalogoa 51

Eranskina 3: Valentin Larrea Auzmendi 54

Ilustrazioen aurkibidea

1 go ilustrazioa: Gabiriako Eskola Nazionalen irekiera eguneko kontzertu programa. Iturria: artxibo familiarra.

2 go ilustrazioa: Gabiriako Eskola Nazionalen irekiera, 1912ko azaroaren 24an. Iturria: artxibo familiarra.

3 go ilustrazioa: Larrea familia, Gabiriako etxe atarian, c. 1900. Iturria: artxibo familiarra.

4 go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen Madrilgo Musika eta Deklamazio Eskola Nazionaleko espediente akademikoa. Iturria: Madrilgo Goi Mailako Errege Kontserbatorioa.

5go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen eta Teresa Auzmendi Aranbururen ezkontza argazkia. Iturria: artxibo familiarra.

6go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen gazte garaiko argazkia. Iturria: *Bellas Artes*, 1898-11-22.

7go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturbek Euskal Festen baitan lortutako sarien taula. Iturria: egileak egina.

8go ilustrazioa: Valentin Larrea Auzmendiren umetako argazkia, c. 1910. Iturria: artxibo familiarra.

9go ilustrazioa: Sarasate sariaren epaimahaiko akta, 1917ko uztailaren 26a. Iturria: artxibo familiarra.

10go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturbek 1933ko maiatzaren 16an eskainitako kontzertuko egitaraua. Iturria: artxibo familiarra.

11go ilustrazioa: Iruñeko San Zernin elizan 2019ko irailaren 4an Valentin Larrea Iturberen omenez eginiko kontzertuko egitaraua. Iturria: artxibo familiarra

12go ilustrazioa: Zarauzko Modelo aretoan 2019ko abenduaren 13an Valentin Larrea Iturberen omenez eginiko kontzertuaren kartela. Iturria: artxibo familiarra

13go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturbe jaio zen etxe atarian bere omenez kokatutako plaka. Iturria: Elena Berazadi Larrea.

14go ilustrazioa: *Valentin Larrea Yturbe, Gabiriako kontzertua, hari orkestrarako obra* diskaren azala

15go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen zenbait eskuizkribu, Nafarroako Artxibo Orokorrean. Iturria: Elena Berazadi Larrea

16go ilustrazioa: 16go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen senideak eta Nafarroako Artxibo Orokorreko arduradunak eta ni neu, 2021eko martxoaren 26an. Iturria: Elena Berazadi

17go ilustrazioa: Gabiriako Andre Maria elizako organoa. Iturria: Goiberri ataria (www.goiberri.eus)

18go ilustrazioa: Gabiriako Andre Maria elizako organoaren erregistro konposizioa. Iturria: *Organoa Gipuzkoan*, Esteban Elizondo (2010)

19go ilustrazioa: Valentin Larrearen Preludio, Adagio y Fuga piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

20go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Andante en Do mayor* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

21go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Marcha Nupcial* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

Sarrera

Valentin Larrea Iturbe (Gabiria, 1876ko abenduaren 27a – Iruñea, 1970ko maiatzaren 10a) konposatzailearen heriotzaren 50. urteurrena ospatu zen iaz. Berak idatzitako musikak hainbat urte daramatza isilpean eta ondare hori berreskuratu eta zabaldu nahian dabil bere familia azken bi urteotan. Armairu eta artxibategietan gordeta dirauen artea berpizteko martxan jarritako proiektua duela hilabete batzuk iritsi zen nigana, Valentin Larrearen organorako lanei hautsa kendu eta itzaletik ateratzeko intentzioa erakutsi baitzidaten bere bilobetako bik, Elena Berazadi Larreak eta Maite Berazadi Larreak. Esteban Elizondo musikari, irakasle eta doktore donostiarrak bideratu zituen nigana, esku artean zutena nire ikasketetan osagarri aberatsa izan zitekeelakoan.

Interesgarria bezain ausarta iruditu zitzaidan proposatzen zidaten erronka. Ordura arte, ezagutzera eman gabeko organorako lanen biltze-, analisi-, eta interpretazio-lana, hain zuzen ere. Pertsonaiari buruz lehen dokumentuak arakatzen hasi bezain pronto, nire Ikasketa Amaierako Lana Larrearen bizitza eta musikari eskaintzea otu zitzaidan, euskal musikari baten berreskurapen prozesuan nire aletxoa jartzeko asmoarekin. Hutsetik hasi beste aukerarik ez nuen, ez baitzen lehendik Valentin Larreari buruz ezer zehatzik eta borobilik publikatu. Begiratu ahal izan dudan guztia, bera bizi izan zen urteetan publikatutakoa da, bere heriotza heltzearekin batera, bere ibilbidea euskal musikaren memorian erabat ezabatu baitzen.

Nire lana aurrera eraman ahal izateko, bilaketa iturri nagusiak, familiarengandik jasotako argazki, errekorte, prentsa ohar, diploma, domina eta beste hainbat ekarpenez gain, garaiko egunkari, aldizkari zein beste hainbat medio informatiboetako hemeroteka eta artxiboak izan dira. Ikerketa hemerografiko handia egin behar izan dut, historian zehar Valentin Larrearen aztarna eta zantzuak topatzeko. Hala nola, Espainiako Liburutegi Nazionaleko *Hemeroteka Digitala* atarian, Kultur Ministerioko *Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala* webgunean edota

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Atzoko Prentsa Digitala* atarian ikerketa dokumental sakona bat gauzatuz topatu ditut nire lana ontzen lagundu didaten datu eta informazio interesgarriak. Hauetaz gain, ezin bestekoak egin zaizkit Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboak zein Nafarroako Gobernuaren *Arte Eszenikoen eta Musikaren Artxiboak* eginiko ekarpenak.

Lan hau planteatu eta osatzerako orduan, nire helburu nagusietako bat Valentinen bizitzaren zertzeladak argitzen saiatzea izan da, orain arte piezak erabat solte izan dituen puzzle biografiko zentzudun eta egiazko bat osatu nahian. Hiru etapatan banatu dut arlo biografiko hau, Valentin berak bizitzan izaniko hiru egoera irudikatu nahian: Gabiriako haurtzaroa eta musika munduko hastapenak, Madrilera eginiko jauzia eta bertako ikasle bizimodua eta azkenik, Iruñeako etapa zabala, non familia osatzeaz gain bere musikari ibilbidea garatu eta jorratuko zuen. Azken etapa honetan informazioa gutxiagotu egiten da eta *Nuevo Casino Eslava* elkarteko artxiboa, zoritxarrez, ez dut eskuragarri izan. Bestetik, *Diario de Navarra* egunkariaren kolaborazio eza nabarmendu nahiko nuke, bertan Valentin Larrearen inguruko informazio aberatsa aurkituko nuelakoan atea jo eta erantzunik ez bainuen jaso.

Lan honen lehen kapituluak jasotzen duen bere biografia osatzeko lagungarriak liratekeen dokumentu ofizialen faltan, Valentinen biloba bik, Maite Berazadi Larreak eta Elena Berazadi Larreak, eskainitako argazki, dokumentazio eta testigantzak hartu ditut oinarri berau hau ontzeko, aitonaren lehen urratsak ederki ezagutzen baitituzte beraiek, aitona beraren eta beren ama Maria Luisa Larrea zenaren ahotik jasota. Beraiek dira, lan honen protagonistarekin geratzen zaizkigun lotura hari bizi bakarrak. Hori horrela izanik, Berazaditarrekin izaniko elkarrizketak eta berauen transkripzioak oso baliagarri izan zaizkit nire lanari koherentzia bat ematerako garaian. Bestalde, Itsaso Aristizabal piano jotzailearekin izan nuen elkarrizketak ere informazio ugari eskaini dit, azken bi urtean Larrearen lanak izan duen argitara ateratzea azaltzeko.

Biografia osatzeaz gain, lan hau egituratzerako orduan, beste bi kapitulu gehitu dizkiot Valentin Larrearen bizitza azaltzen eta erakusten duen atal inizialari. Bigarren atal batean, bere familiaren iniziatibaz azken bi urtean bere lana berreskuratzeko egin den prozesua azaltzen dut. Azken kapituluan berriz, eta nire instrumentua denarekin lotuz lan hau, Larrearen organoarako obren aurkezpena gauzatzen saiatu naiz. Eranskinen arloan eginiko lana balioan jarri nahi nuke, Larrea familiaren zuhaitz genealogikoaz gain, bere katalogoaren osatzea eta bere seme musikariaren biografia laburra egin ahal izan baititut, eskura nuen informazioa aprobetxatuz eta lanari azken borobiltze bat oparituz.

Valentin Larrearen obra argitara ateratzeko bere familia egiten ari den lana kontuan izanda, egokia eta beharrezkoa iruditu zitzaidan prozesu hori nire lanean txertatzea. Prozesu luzea denez, gaurdaino eginiko bidea kontatzen dut hemen, laneko beste helburuetako bat betez, ahanzturan eroria zen konposatzaile baten berpizkundearen errelatua egitea.

Nire lanaren beste helburuetako bat, aipatu berri dudan Valentinen organorako obra aurkeztea eta bertara hurbilketa bat egitea izan da. Azken finean, familiarekin izandako lehen kontaktu haietan eskaini zidaten egiteko nagusia hauxe izan zen. Ondoren etorri dira Valentinen bizitzarekiko interesa eta hori lan honetan isladatzearen ideia. Txikitatik, organoarekiko erlazio berezia izan zuen konposatzaileak eta bere organorako lanen analisiak, bere konposatzeko forma, estiloa eta lengoaia argi eta garbi erakusten dizkigu.

Gure herriko antzinako musikarien zein beste edozein alor artistikori beren bizitza eskaini zioten maisuen lanak berreskuratzea, kolektibo gisa dugun betebehar saihetsezina da, haiek hobeki ulertzeak geure ezagumen sakonagoa baidakar. Proiektu zabal baten lehen hazia da honakoa, kontzertu, argitalpen eta grabazio zenbaitek ondorengo urteetan osatuko duten landare baten lehen sustrai sorta.

Besterik ez, eskerrak eman lana ontzen lagundu didaten pertsona guztiei, datu bila joan naizenean posta elektronikoko atea ireki didatenei eta bereziki, lehen momentutik babes izugarria eskaini didan Valentin Larrearen familiari, nire gidari fina izan den Itziar Larrinaga tutoreari eta beharrezkoen nuenean esku bat luzatu didan Mireia Galarzari lagun minari.

1 Musikari eskainitako bizitza oparoa

1.1 Haurtzaroa Gabirian

Valentin Larrearen bizitzaren nondik norakoak ulertzeko, ezinbestekoa iruditzen zait lehendabizi bere sustraiak arakatzen hastea. XIX. mendeko azken laurdenean kokatu behar gara mutiko adimentsu batek begi aurrean zuena ulertu ahal izateko. Bigarren karlistadak amaitu berritan, nekazal giroko herri batean, etorkizun oparoa izango zuen musikari baten istorioa idazten hastear zen.

Juan Valentin Larrea Iturbe, Eztanda errekak zeharkatzen duen Goierri eskualdeko bihotzean aurkitzen den Gabiria herrian jaio zen 1876ko abenduaren 27an, bertoko udaletxean. Hala ziurtatzen du Andre Maria Jasokundearen Parrokian aurkitzen den jaiotza-agiriak. Beronen zein ondoren aipatuko ditudan hainbat data aipagarriren berri Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan izan dut, webgunean eskuragarri duten datu baseaz baliatuz[1] (https://artxiboa.mendezmende.org). Valentinen gurasoak, Meliton Larrea Perez de Lazarraga eta Tecla Iturbe Balenzategui ziren. Berauek, zenbait urte lehenago iritsi ziren herrira, aita Meliton Zalduondon 1843ean jaioa zen arren, 1871ako azaroaren 28an Gabiriako udaletxeko idazkari kargua hutsik geratu zela eta mugitu baitziren bertara, familiak eskuragarri duen datarik eta jatorri konkreturik gabeko orri batzuetan agertzen den moduan. Horretaz gain, herriko organoaren arduradun ere bihurtu zen, musikaria eta maisua ere izan baitzen Meliton (Berazadi, M., Arakistainen, ll. 38-39). Tecla, Melitonen bigarrengo emaztea zen, izan ere, Meliton lehendabizi Teclaren izeba Manuela Balenzategui Ezpeletarekin ezkondu zen. Manuela, 1843ko urriaren 14an jaio zen Gabirian eta 1872ko apirilaren 8an zendu zen bertan (www.mendezmende.org). Melitonek eta Manuelak alaba bat izan zuten, Francisca Larrea Balenzategui. Manuelaren heriotza goiztiarraren ondoren, Meliton bere emaztearen ilobarekin

[1] Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan aurkitzen dira jaiotze- ezkontze- eta heriotza-datak.

ezkondu zen, garaian ohikoa baitzen familiarteko norbaitekin ezkontzea behin senarra edo emaztea gazterik galduta. Tecla, Ormaiztegin jaioa zen 1855ean (www.mendezmende.org). Familia aberats baten kidea zen Tecla, bere osabetako batek, Eustaquio Balanzateguik, negozio handiak baitzituen Kuba aldean. Eustaquio Balenzateguik, besteak beste, 1912an Gabiriako eskola publikoa izan zenaren eraikina dohaintzan ematen dio udaletxeari. Horrela agertzen da hainbat eta hainbat dokumentutan:

> Copia de la Escritura de Donación de escuelas a la Villa de Gabiria, otorgada por Don Eustaquio de Balenzategui y Aramburu, a favor de dicha villa, representada por su Alcalde-presidente Don Francisco Urteaga Loinaz, ante Don Victor Bárcena Gómez notario del ilustre Colegio de Pamplona, con residencia en Villafranca de Oria, a 6 de Diciembre de 1916 (Maiz, 2013, 33 or.)

Eskola horien inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Valentin Larrearen pieza bat interpretatu zen (Ikus 1go ilustrazioa). Obra bera, *La perla del océano,* egun horretarako espreski konpositoreak sortutakoa da. Ekitaldiaren data 1912ko azaroaren 24koa da. Jende ugari bertaratu zen inaugurazio ekitaldira (Ikus 2go ilustrazioa). Larreatarrena Gabiriako historian ahots propioa izan duen sendia da.


Inauguración de las Escuelas de Gabiria

CONCIERTO

LA PERLA DEL OCÉANO. (MARCHA). LARREA.
(Composición expresa para este acto).

ROMANZA DE JOSHE MARI. USANDIZAGA.
(Arreglada para Banda por el Sr. Aramburu).

CLAVELES ROJOS. (VALSES). ARAMBURU.

24-11-912

1go ilustrazioa: Gabiriako Eskola Nazionalen irekiera eguneko kontzertuko programa. Iturria: artxibo familiarra.

2go ilustrazioa: Gabiriako Eskola Nazionalen irekiera, 1912ko azaroaren 24an. Iturria: artxibo familiarra.

Melitonen eta Teclaren arteko ezkontza, 1875ko abenduaren 20an izan zen, Gabiriako parrokian. Behin aita udaletxeko idazkari karguan finkatu zenean, langileentzat bideratuak izaten ziren etxebizitzak utzi eta Larreaenea izeneko etxea eraikitzea otu zitzaien Teclari eta biei. Valentin seme zaharrenaren atzetik, lau anai-arreba gehitu ziren Larreaenean sortua zen familiara: Fernando, 1880ko ekainaren 1ean jaioa; Genoveva, 1884ko urtarrilaren 4ean jaioa; Segunda, 1887ko ekainaren 2an jaioa eta Eusebia, 1896ko martxoaren 7an jaioa (www.mendezmende.org).

3go ilustrazioa. Larrea familia Gabiriko etxe atarian, c. 1900. Ezkerretik eskubira: Tecla Balenzategui (ama), Genoveva Larrea (arreba), Segunda Larrea (arreba), Eusebia Larrea (arreba) eta Meliton Larrea (aita). Iturria: artxibo familiarra

Valentinen anaia Fernando osaba Eustaquiorekin Kubara bere negozioetan esku bat botatzera joan zen momentuan, Valentin seme bakartzat geratu zen Larreaenean, hiru arreben konpainiarekin. Fernando anaia 9 urte zituela, 1889an hain zuzen, eraman zuen osabak seme gisa hartuta Kubara. Eustaquio Balenzateguik garaian jabetza ugari zituen Gabiria, Zerain, Mutiloa, Ormaiztegi eta beste zenbait bazterretan. Bere ondarearen erakusgarri da bere

baserrietako batean hil zela Jose Maria Iparraguirre bardo ospetsua (Berazadi, E., Arakistainen, ll.105-107).

Valentinek musika ikasketak bere aitarekin hasi zituen (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 177-178). Melitonek, lehendik ere organo klaseak ematen zituen Gabirian, etxeko gastuak apuntatzeko erabiltzen zuen libretetan hala agertzen baita. Hala ere, Ormaiztegira bideratu zuen azken honek semea, bertan zegoen irakasle baten eskutik klaseak jaso zitzan (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 178-179). Irakasle honen izenaren berri ezin izan dut eduki. Bertara lezioak hartzera joaten zenean, ohikoa omen zuen Valentinek bertan gosaltzea, aita Melitonen anotazioetan ikusi daitezkeen *Lezioa eta Gosaria* oharrek dioten moduan (Berazadi, M., Arakistainen, l. 179).

Biloben ahotik entzundakoari jarraiki, Valentin herriko mutiko soil bat izan zela pentsatu dezakegu, garaian garaiko entretenimenduak eta jolasak izaten zituelarik denbora pasa. Anekdota gisa, Maite Berazadik ongi gogoan du aitonak kontatu ohi ziena: Gabirian argirik ez zenean, Ormaiztegira bidean zen puntu batera joaten zirela bera eta lagunak bertan ikusten baitzuten Ormaiztegin nola pizten ziren argiak guztiak kalean (Berazadi, M., Arakistainen, ll. 191-193). Horiek ziren mutiko taldearen aisialdi moduak, sinple bezain inozenteak.

3go ilustrazioan ikusi daitekeen moduan, familia ahalduna zen Larreatarrena. Ohikoa zen egunerokotasunean jantzi dotoreak soinean eramatea. Herriko beste hainbat erakundetako jendeak bisita ugari egiten zituen haien bizilekura. Garaiko bainuetxeko zein pasionisten komentuko hainbat pertsona gerturatzen ziren bertara, jan eta edanean gozatzera. (Berazadi, M., Arakistainen, ll. 208-210).

Nekazal langile mundua arrotza zitzaien familiako partaideei. Genoveva, Valentinen arreba, esaterako, oso abila omen zen pinturan zein jostun lanetan. Gabiriako telefonista izatera iritsi zen eta garai hartan oso ohikoa ez zen arren, argazkiak atera eta berauek errebelatzen zituen

(Berazadi, M., Arakistainen, ll. 153-155). Meliton aitaren jarrera eta izateko modu zorrotza zela-eta, beronek erabili ohi zituen gastuen koadernoetan alabak josteko behar zituen tramankulu, material zein beste hainbat bitxikeriaren xehetasunak jasotzen zituen.

Meliton Larrea 48 urtez izan zen Gabiriako udaletxeko idazkaria. 1919ko ekainaren 24an, San Joan egunez erretiroa hartu zuen eta hala eman zion amaiera bere ibilbide profesionalari, lehen aipatu ditudan jatorri konkreturik gabeko ohar horietan agertzen den moduan. Aitzik, ez zituen bere interes pertsonaleko diziplinak alde batera utzi, organoa jotzen jarraitu baitzuen bere herriko parrokian. 1933an zendu zen berak emaztearen laguntzaz sorturiko etxe maitean, Larreaenean. Urte batzuk beranduago, gainera, Gerra Zibila tarteko, Fernando semea Gabiriako alkatea zen (Maiz, 2020, o. 37). Leku berberean, lau urte geroago, 1937an hain zuzen, zendu zen Tecla Iturbe Balenzategui. Gaur egun Larreaenea zutik dagoen arren, ez da familiako kideen jabetza.

1.2 Ikasle bizitza Madrilen (1893-1898)

Aitak bidalirik, 1893ko urrian Valentin Larrea, Madrilgo Musika eta Deklamazio Eskola Nazionalean onartua izan zen ikasle gisa. Bertan bost ikasturte igaroko ditu, garaiko maisuak ziren José Tragó, Luis Valentín Arín de Goenaga, Tomás Fernandez Grajal, Emilio Serrano edota Ildefonso Jimeno de Lerma irakasle izan zituelarik. Herrian aitaren zein Ormaiztegiko irakaslearen lehen irakatsiak zabaltzeko aukera anitza izan zuen berton Valentinek.

Madrilen eginiko ikasketak hobeto ulertzen lagunduko digun Valentin Larrearen espediente akademikoa lortu nuen Madrilgo Kontserbatorioko artxiboarekin harremanetan jarriz. Bertan ikusi ditzakegu (Ikus 4go ilustrazioa) Valentinek gauzatako ikasgaien zerrenda, hauetako bakoitzean lortutako kalifikazioak eta gai desberdinen ardura zuten irakasleak. Horretaz gain, ikasketetan lortutako zenbait sari ere agertzen dira bertan.

RCSMM · REAL CONSERVATORIO SUPERIOR DE MUSICA DE MADRID

ARCHIVO HISTÓRICO-ADMINISTRATIVO

Consejería de Educación, Juventud y Deporte Comunidad de Madrid

ALUMNO	AÑO LECTIVO	ASIGNATURA	CURSO	CALIFICACIÓN	TIPO DE ENSEÑANZA	PROFESOR	PREMIOS
Valentín Larrea Iturbe nº 11603	1893-1894	PIANO	5º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	José Tragó Arana	
		ARMONÍA	4º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Luis de Valentín Arín de Goenaga	
	1894-1895	PIANO	6º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	José Tragó Arana	2º PREMIO
		COMPOSICIÓN	1º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Tomás Fernández Grajal	
	1895-1896	PIANO	7º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	José Tragó Arana	1º PREMIO
		COMPOSICIÓN	2º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Tomás Fernández Grajal	
		COMPOSICIÓN	3º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Tomás Fernández Grajal	
	1896-1897	COMPOSICIÓN	4º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Emilio Serrano	
		ÓRGANO	5º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Ildefonso Jimeno de Lerma	2º PREMIO
	1897-1898	COMPOSICIÓN	5º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Emilio Serrano	1º PREMIO
		ÓRGANO	6º	SOBRESALIENTE	OFICIAL	Ildefonso Jimeno de Lerma	1º PREMIO

4go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen Madrilgo Musika eta Deklamazio Errege Eskola Nazionaleko espediente akademikoa. Iturria: Madrilgo Goi Mailako Errege Kontserbatorioa

Piano, organo eta konposizio ikasketak gauzatu zituen Madrilen, ikasleei zuzenduriko zenbait lehiaketetan saritua izateaz gain. *La Gran Vía* egunkarian, 1895eko abenduaren 14an, esaterako, kontserbatorioko sariketa batean Valentin Larrearen izena aipatzen da, bigarren saria eskuratu baitzuen, piano espezialitatean. 1897ko ekainaren 21ean, *La Unión Católica* egunkarian, beste bigarren sari baten berri jasotzen da, oraingoan organo espezialitatean:

> Con gran lucimiento han comenzado hoy en la Escuela Nacional de Música y Declamación los concursos a premios, a que aspiran los alumnos más sobresalientes de diversas enseñanzas y clases. Hoy, a las nueve de la mañana han tomado parte en los concursos de Harmonium, Órgano y Arpa, los discípulos del director del Conservatorio Sr. Jimeno de Lerma y de la profesora Srta. Bernis. El tribunal calificador ha concedido el segundo premio de la clase de órgano a D. Valentin Larrea e Iturbe, para quien especialmente ha sido un verdadero triunfo el concurso de esta mañana. (*La Unión Católica*, 1897-06-21)

El Globo egunkariak, 1898ko ekainean gauzatutako lehiaketetan Valentinek jasotako sariaren berri eman zuen. Aho batez epai-mahaiak, organo espezialitatean lehen saria ematea erabaki zuen. Berriaren oihartzuna *La Unión Católica* egunkarira iritsi zen 1898ko ekainaren 7an argitaratutako oharrean irakur daitekeen moduan.

Actualidades aldizkarian azaldu zen artikulu batean, Valentinen irakasle nagusia José Tragó jauna izan zela adierazten da, 1901 urtean publikatua izanik ohar hau. Bestalde, Valentin Arin armoniako irakasle, Emilio Serrano konposizioko irakasle eta Gerónimo Jimeno organo irakasle izan zituela argitzen da (*Actualidades*, 1901, o.g.).

Bizitza pertsonalari erreparatzen bazaio, Madrilen bizi izan zen bitartean Gabirian gurasoek berarekin ezkontzako neska bat aukeratua zuten arren, Valentini bihotza Teresa Auzmendi Aranburuk ostu zion. Izatez, Teresa beasaindarra zen, 1874an jaioa (www.mendezmende.org), hau da, Valentin baino bi urte zaharragoa. Teresaren ama, Carmen Aranburu, ataundarra zen. Bere bi ahizpa, *Duquesa del Infantado*ko dontzeilak ziren Lazkaon, bertan aurkitzen zen jauregian. Teresaren aita, Jose Joaquin Auzmendi Arruti, Bidanian jaioa 1843an (www.mendezmende.org), oso gazterik hil zen tren istripu batean, bere seme-alabak, Teresa eta Joaquin, umezurtz utzita. Carmenen ahizpak Madrilera joanak ziren, ordurako. Neska trebe eta azkarrak izanik, jauntxoaren interesak piztu eta hirira eraman baitzituen berarekin. (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 131-137)

5go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen eta Teresa Auzmendi Aranbururen ezkontza argazkia. Iturria: artxibo familiarra.

Egoera horretan, ahizpen babesa eta haien laguntza behar zuela kontuan izanda, Carmen Madrilera abiatu zen, Teresa alaba eta Joaquin semea eskutik hartuta. Urteak aurrera joan ahala, behin umeak hasita, Carmenen bi ahizpek kafe bat montatzeko erabakia hartu zuten, momentura arte lortutako dirua baliatuz hein horretarako. Teresa, emakume dotore bezain prestua ei zen, biloben hitzetan. Joaquin anaiak korukide zuen Valentin eta azken honekin lagun arteko harreman estu bat ezarri ostean, Auzmenditarrenera bazkaltzeko aitzakiarekin eginiko bisita batean ezagutu ziren elkar Valentin eta Teresa. 1900ko

urriaren 9an ezkondu ziren Madrilen. Honen berri *El Liberal* egunkariko lerroek eman zuten 1900ko urriaren 20an: "Matrimonios: **Congreso.**– D. Gaspar Pantaleón Inglés con doña Isabel Sañado y Martínez; **Universidad.**– D. Valentín Larrea de Iturbe con doña Teresa de Auzmendi y de Aramburu." (*El Liberal,* 1900-10-20).

6go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen gazte garaiko argazkia. Iturria: *Bellas Artes*, 1898-11-22.

1898ko azaroaren 22an, Valentinek lortutako beste lehiaketa sari baten berri ematen da, oraingo honetan organo espezialitatean, *Bellas Artes* aldizkarian (*Bellas Artes,* 1898-11-22). Argitalpen berberean, konposatzailearen ikasle garaiko argazki bat agertzen da, 6go ilustrazioan ikus daitekeen bezala.

Kontzertuetan, errezitaldietan, hala nola, beste hainbat motatako ekintzetan, parte-hartze sutsua erakutsi zuen Larreak bere ikasle garaian. Horren erakusle da, esaterako, 1895ko abenduaren 26an, *El Movimiento Católico* egunkarian, aurreko egunean egindako kontzertuari buruz argitaratutako erreseina:

> Muy agradable y amena fue la velada de anoche en el Círculo Católico de Obreros establecido a pocos metros de la plaza de San Andrés. Hallábase el vasto salón completamente lleno de los jóvenes que frecuentan el Círculo y de muchas otras respetables personas invitadas al acto. El programa de la función era el siguiente:
>
> 1º Chanson cosaque, ejecutada en piano a cuatro manos por D. Valentín Larrea y un señor sacerdote. (…) El aprovechado alumno del Conservatorio, Sr. Larrea, hizo prodigios de ejecución en el piano, especialmente en el Pout Pourri con que fueron recompensados con justísimas palmas. Es un joven que promete mucho, y que seguramente dará grandes frutos en el arte lírico. (*El Movimiento Católico,* 1895-12-26)

1.3 Iruñean finkatu eta ibilbide musikala landu

Madrilen ikasketak amaitzear zela, hiriko kafe batean izan zuen Valentinek Iruñako *Nuevo Casino Eslava* instituzioan egiitera zihoazen oposaketa frogen berri. Pianista bat behar zuten bertan eta ikasle prestuak bizitza berri bat eraikitzeko aukera polita izan zitekeela iritzita, Iruñera joateko erabakia hartu zuen. 1898ko otsailaren 11n eman zion aho batez epai-mahaiak plaza Valentin Larreari, hurrengo eguneko egunkarietan garbi ikus daitekeen moduan:

> Anoche, a las diez, se reunió la Junta Directiva del Nuevo Casino Eslava, y después de oír las opiniones de los profesores que constituyeron el tribunal para conceder la plaza de pianista de dicha sociedad, designaron a don Valentin Larrea, distinguido músico de la provincia de Guipúzcoa. Felicitamos al agraciado. (*El Eco de Navarra*, 1898-02-12)

Teresa emaztea eta biak, Iruñeko alde zaharreko Txapitela kaleko 12.ean jarri ziren bizitzen, hirugarren solairuan, hain zuzen ere. Bertan igaroko zituen Larreak hil arteko hamarkadak. Behin lanpostu finkoa lortuta, familia osatzeko beharrezkoa zen erosotasuna erdietsi zuten eta horrenbestez 1901. urtean aitaren izen berbereko premua jaio zen, Valentin Larrea Auzmendi. Haren atzetik, beste lau oinordeko etorri ziren mundura Nafarroako hiriburuan: Joaquín Larrea Auzmendi, 1905ean jaioa; Mª Luisa Larrea Auzmendi, 1908an jaioa; Fernando Larrea Auzemendi 1914an jaioa eta Mª Teresa, 1917an jaioa (www.mendezmende.org). Azken biak, Fernando eta Mª Teresa goiz zendu ziren, garaiko izurriteen ondorioz. Biak, 5 urte zituzten heriotza goiztiar horiek gertatzean. (Berazai, E., Arakistainen, ll. 83-84)

1.3.1 Irakasle fazeta

Valentinek klaseak eman zituen Iruñean bizi izan zen urteetan. Hala erakusten digute *El Eco de Navarra* egunkarian agertutako zenbait iragarkik. Horietako batzuk, 1899ko otsailaren 21, 25 eta 26ko nahiz 1899ko martxoaren 10ko data dute. Hona hemen horietako bat:

ANUNCIO: Valentin Larrea, pianista por oposición del Nuevo Casino Eslava de esta ciudad con carrera brillante terminada en el Conservatorio de Madrid, da lecciones particulares y a domicilio, de solfeo y piano a precios convencionales. Calle Estafeta 31-1º. (*El Eco de Navarra,* 1899-02-10)

Iragarki horiek oihartzuna izan zuten hirian dirudienez, maisuaren lezioak hartzera hainbat ikasle gerturatu baitziren. Ikasle horien aurrerapausoen zein lehiaketa hainbatetan lortutako sarien berri *El Eco de Navarra* egunkariko hainbat zenbakitan jaso zen. Lehenengo aipamena Juana Luqui izeneko ikasleak lorturiko kalifikazio on bati buruzkoa da:

En los exámenes verificados recientemente en el Conservatorio de Madrid ha obtenido la nota de sobresaliente en sexto año de piano la señorita Juana Luqui, discípula de don Valentín Larrea. (*El Eco de Navarra*, 1899-06-23)

Urte batzuk beranduago, Madrileko kontserbatorioan Larrea maisuaren ikasle batek izandako lorpenen berri eman zuen egunkari berberak:

Anteayer llegó procedente de Madrid, acompañada de su señor padre, la distinguida señorita Angelita Fernández, que como saben nuestros lectores ha obtenido un señaladísimo triunfo en el Conservatorio de Música y Declamación. Debemos hacer constar que dicha señorita ha sido preparada por el notable pianista del Nuevo Casino Eslava don Valentin Larrea. Nuestra enhorabuena al profesor y a la discípula. (*El Eco de Navarra,* 1905-06-20)

Flor Rubio izeneko ikasleak kontserbatorio bertan 1906an bere ikasketen baitan lorturiko emaitza onak eta Larrea maisuaren talentua goraipatzen ditu beste ohar honek:

· El profesor que ha tenido la señorita Flor Rubio, sobresaliente en las asignaturas de 5º y 6º año del Conservatorio, ha sido el distinguido pianista don Valentin Larrea a quien hacemos extensiva la felicitación que dirigimos a dicha señorita y a su distinguida familia. (*El Eco de Navarra* 1906-06-19)

Mota honetako azken aipamena 1909koa da eta bertan 13 urteko ikasle baten talentuaren berri ematen da. Belaskoaingo Bainutegiko piano-jotzaile izendatu zuten Larrearen ikasle gaztea:

·Según nuestros informes, ha sido nombrado pianista del Balneario de Belascoain el niño de 13 años don Desiderio Arana, el cual presenta facultades poco comunes para la música, pues en 7 meses de

> estudio ha entrado ya en el quinto curso del plan del Conservatorio. Felicitamos al niño por su nombramiento, así como a su profesor don Valentin Larrea, y a sus padres don Pablo Arana y doña Felina Berrahondo, a la vez que a la sociedad Burlada y Belascoain por las importantes mejoras que realizan en su establecimiento. (*El Eco de Navarra*, 1909-05-14)

Urteak igaro direla kontuan izanda, ikasle hauek jada hilda daudela ondorioztatu dezakegu, baina beraien familiartekoekin kontaktuan jarri ezkero, Valentin Larrearen irakasle garaiko hainbat dokumentu, ohar edo kontakizun lortu genitzake.

1.3.2 Konposizioa, bere pasioa

Irakasle alderdiaz gain, Valentin Larreak Madrilgo urteetan konposizio arloan hasitako bideari jarraipena ematen dio Iruñean. Ugariak dira bertan eta bertoko erakunde zenbaitentzat sortutako piezak. Erakunde horien artean, Iruñeko Orfeoia nabarmendu daiteke, familiak dioenez, 1900. urtetik aurrera, instituzio honen fundatzaile moduan agertzen baita bere izena. 1865ean ereiten da Iruñeko Orfeoiaren lehenengo hazia baina mende amaierako liskar eta aldaketa batzuen ondorioz gertatu ei zen fundazio berri horretan parte hartu zuen Valentin Larreak, antza denez. (Berazadi, M., Arakistainen, ll. 300-302).

Erakundeko artxiboetan aurkitzen dira hainbat dokumentu Larrea artistaren inguruan. Batzuetan pianoarekin kontzertuak laguntzen zein orfeoiak interpretatutako piezen sortzaile bezala. Kontzertu programa horietako lehenak, 1900ko maiatzaren 24 eta 27an egindakoenak dira. Bertan, Remigio Múgica abeslari gisa eta Valentin Larrea pianoan aritu ziren. Iturrietan agertzen den moduan, Valentinek, J. Brahmsen lehenengo *Polonesa* [sic] interpretatu zuen pianoan bakarlari. Bi kontzertu hauek, Iruñeko Orfeoiaren entsegu aretoan eskaini ziren (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0021).

Hurrengo aipamena, 1901ko uztailaren 8an eta 11ean, Printzipal Antzokian Iruñeko Orfeoiak zein Santa Cecilia antolatzen zituzten kontzertu goiztiarretakoa da. Kontzertu honetan,

orfeoiak lehen aldiz interpretatu zuen Larreak Zumaiako lehiaketetara aurkeztu zuen eta saritua izan zen *Eresiak* lana, abesbatzarako (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0025).

Hurrengo urteko sanferminetako ziklo berberean, 1902ko uztailaren 9an, hain zuzen, Iruñeko Orfeoiak Larreak Azpeitiko lehiaketetara aurkeztu zuen eta saritua izan zen *Ordizia* obra, abesbatzarako, lehen aldiz interpretatu zuen (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0033). 1903ko martxoaren 25ean zein 29an, orfeoiko saletan, Kontzertu Sakro deituriko emanaldia eskaini zuen koralak. Bertan, Isturiz eta Larrea orfeoiko partaideek, Larrea beraren *Gran marcha fúnebre para piano y armonium* obra interpretatu zuten (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0038). Urte berean, uztailean ohikoak ziren eta lehendik aipatu ditugun Santa Cecilia elkarteak nahiz Iruñeko Orfeoiak antolatutako kontzertu goiztiarretako hirugarrenean, Larrearen *Canción primaveral* emakumez osatutako abesbatzarentzat idatzitako lana entzun ahal izan zen (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0039).

1907ko azaroaren 24an, Gayarre antzokian eskainitako gau-ekitaldi baterako sortutako programa informatiboan, Larrearen izena aurki dezakegu: (...)"2. Sección de Gramófono, galantemente cedido por la acreditada Casa de Música del Sr. Luna, acompañado al piano por el profesor Sr. Larrea" (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0058).

1908ko uztailaren 8tik 12ra, Gayarre antzokian lau kontzertu handi eskaini zituzten Pablo Sarasate biolin-jotzaile trebeak eta Berta Marx piano-jotzaile frantsesak. Kontzertu horietako batean, Iruñeko Orfeoiak gonbidatu papera izan zuen Valentin Larrearen *Negra sombra - Balada galega* lana interpretatuz (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0061). Obra honen beste erreferentzia bat topa daiteke 1909ko urriaren 17an gauzatutako kontzertuan, orfeoiaren eraikin berria inauguratzeko egin zutenean, hain zuzen. (Iruñako Orfeoiko Artxiboa, PRO_0065)

Euskal Lore-jokoen Udalbatzak antolatutako lehiaketa poetiko-musikalak, Gipuzkoako zenbait herritan Euskal Festak antolatzen zirenaren aitzakiarekin, garaiko konposatzaile

euskaldunentzat, aukera paregabea izaten ziren beraien talentua erakutsi zein lau haizetara berau zabaltzeko. Valentin Larrea, hainbat aldiz aurkeztu zen sariketa hauetara, beste hainbat aldiz saritua suertatu zelarik. *Atzoko Prentsa Digitala* atarian (www.atzokoprentsadigitala) zein *El Eco de Navarra* egunkarian, sari hauen oihartzunak irakur ditzakegu, lehenengoan sariketetako aktak eta bigarrengoan maisu konposatzaileari eskainitako zorion mezuak, hain zuzen. Hona hemen, urtez urte, gabiritarrak jasotako sarien berri, lan honen egileak eginiko taulan[2]:

Euskal festen baitan Valentin Larreak lorturiko sariak			
1900	Zumaia	1906	Donostia
1901	Azpeitia	1907	Bergara
1903	Irun	1910	Donostia
1905	Bergara	1911	Donostia

7go ilustrazioa: Valentin Larreak Euskal Festetan lorturiko sarien taula. Iturria: egileak egina

Euskal-Erria/Revista Bascongada aldizkarian daude gordeak lehiaketa horietako aktetako zenbait. 1905ko Euskal Festetan, Bergaran, honako deliberazioa aurkeztu zuen epai-mahaiak:

> El premio de 80 pesetas y diploma al antor del mejor zortziko genuinamente euskalduna en sus diseños melódicos y ostentando naturalidad y sencillez, escrito para ser ejecutado por una banda completa de tamborileros, compuesta de dos silbos con tun tun, silbato y atabal, ha sido concedido al trabajo cuyo lema es Laurak-bat, y abierto el sobre que contenía el nombre del autor, ha resultado ser del de D. Valentín Larrea (…) El tribunal lo han constituido los distinguidos profesores señores U. F. Furundarena, D. Germán Cendoya y D. Beltrán Pagola. (*Revista Vascongada*, 1905, or. 190-191)

Donostiako Euskal Festetako 1906ko musika lehiaketan, ondorengo akta jaso zen. Berau, Alfredo Laffitte eta Toribio Alzagak sinatzen dute:

> Musikalarien artian irabazi dituzte sariyak: On Jose Maria Usandizaga ta Soraluce, On Anastasio Huici, On Santos Inchausti, eta On Valentin Larrea jaunak, "Irurak bat" "Jose-Mari" "Nora

[2] Gipuzkoako Foru Aldundiak sarean erabilgarri duen Atzoko Prentsa Digitala atariko artxibategi digitalean, Revista Vascongada – Euskal Erria aldizkarian bilatutako aktetatik abiatuta egin du egileak taula hau

zoaz artzaiña" eta "Euskeria" azalkaitzat dituzten euskal kanta moldaerak-gatik. Donostian, 1906-go Uztaillen 11-an. (*Revista Vascongada*, 1906, or. 50-51)

Handik urtebetera, Elgoibarren ospatu zen jada ohitura bihurtua zen lehiaketa. Bertara ere gerturatu zen Valentin Larrea. Ondorengo akta jaso zen egun hartan:

> Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Elgoibarra, kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurten, izkribatzaile eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia. (…) Musikalarien artean irabazi dituzte sariyak On Jose Maria Usandizaga, On Ignazio Bereziartua, On Jose Olaizola-tarra eta On Valentin Larrea Iturbe-k Bidasoa, Burruntzalia, Nire aberri´ko loreak eta Euskeria azalkaitzat dituzten zortziko eta euskal kanta moldaerazetik. Elgoibarren, 1907-ko Uztaillaren 28-an. (*Revista Vascongada*, 1907, or. 77-78)

Hiru urte beranduago, Gipuzkoako hiriburuan ospatu zen lehiaketako edizio berri bat. Bertan, Valentin Larreak orfeoirako idatzitako lan bat aurkeztu zuen. Ondorengo akta zatian agertzen den moduan, saritua izan zen beste behin konposatzaile gabiriatarra:

> (…) Segundo premio, con 75 pesetas y diploma, al lema "Sorterri", para orfeón de D. Valentín Larrea, de Pamplona. (…) Es cuanto tienen que exponer sobre el referente Certamen los abajo firmantes, miembros del Jurado calificador. San Sebastián 29-VIII-10.– Beltrán Pagola.– Ildefonso Lizarriturri.– B. de Gabiola. (*Revista Vascongada*, 1910, or. 253-254)

Orain artean aurkitu dugun lehiaketa mota honetako azken akta, 1911an Donostian gauzatutako Euskal Festetakoa da. Presentzia ukaezina bihurtua zen Valentinena lehiaketa horietan. Hona hemen, azken akta honek erakusten diguna:

> (…) Crear asimismo otro segundo accesit, con premio también de 50 pesetas para D. Valentín Larrea, autor de la composición vasca "¡Zugatikan…izaera! [sic]". (…) Es cuanto tienen que exponer respecto del actual Certamen los abajo firmantes, miembros del Jurado calificador. San Sebastián, 18 de Diciembre de 1911.– José Luis Zapirain, Ildefonso Lisarriturri. (*Revista Vascongada*, 1911, or. 583)

1.3.3 Aramendia Boskotea

Valentin aitaren ibilbidera itzuliz, Aramendia boskotearekin izan zuen harremana aipatu nahi nuke atal honetan. Iruñeko bizitza musikala, beste hainbat hiritakoa bezala, bizia eta anitza zen eta ugariak ziren hiritarren aisialdirako antolatzen ziren ekitaldi eta kultur-ekintzak. Epizentro hainbat zituzten ekintza hauek eta horietako bat Valentin Larreak bere bigarren etxetzat zuen *Nuevo Casino Eslava* zen. Bertan, 1886an hasi ziren gau-emanaldiak antolatzen. Bertan parte hartzen zuten Valentin Larrea baino lehenago kasinoko pianista izan zen José Samaniegok, hala nola, pianista berak zuzendutako seikoteak edota *España* hirukoteak eta *Armonía Familiar* taldeak (Nagore, 1994, o. 23).

Txostenaren arabera, zenbait kafetan ohikoa zen laukote, seikote edo zazpikote musikalen parte hartzea. Esaterako, Europa kafean 1881ean García, Las Navas, Roncal, Goya, Sánchez, Maya eta Martinez garaiko musikari entzutetsuek osatutako taldeak, kontzertuak eskaintzen zituen. Marina kafean, berriz, Aramendia, Zubiria, Goicoechea eta Azoz maisuek osatutako laukotea egon ohi zen gaua alaitzen ikus-entzuleei. Sarasate kafean nahiz Gazteluko plazan kokatutako Iruña kafean ere, beraien kuarteto propioak zituzten ekitaldi kultural horiek dotoretzeko.

Gau-emanaldi hauetako programak garaian modan zeuden musika pieza "arin" deiturikoek osatzen zituzten. Berauen artean nabarmendu ditzakegu oberturak, fantasiak, rigodoiak, valsak, polkak ala mazurkak. 1889ko urtarrilaren 25ean *Nuevo Casino Eslavan* izan zen kontzertuak, esaterako, ondorengo egitaraua izan zuen: *Guilermo Tell* operako obertura, Charles Gounoden *Fausto* laneko pieza dantzagarriak, *Fatinitza* (Franz von Suppé) obrako rigodoia, *Coqueterie* (Emile Waldteufel) valsak edota *Rosa Blanca* (Joaquin Maya) mazurka, besteak beste. Interesgarria da aipatzea, kontzertu hauetan interpretatzen ziren lanen gehiengoa Santa Cecilia orkestraren errepertoriokoa zela (Nagore, 1994, o. 24).

Gauzak horrela, Felipe Aramendia biolin-jotzaile eta Udal Musika Akademiako irakasleak sortua zuen urte horietarako musika boskote bat. Bertako partaideak ziren garaiko musikari nafar ospetsu hainbat. Horien artean ezin daitezke aipatzeke utzi Aramendia bera, Goicoechea, Lostau, Aranaz eta Azoz. Ohikoa zen, Valentin Larreak talde honekin kolaboratzea, bere lantokian eginiko kontzertuak ugariak izaten baitziren. Gainera azken honek konposatuta obra hainbat ere izan zituzten beren errepertorioan. Horrela ikus daiteke *El Eco de Navarra* egunkariak 1911ko urriaren 22an argitaratutako lerroetan:

> El notable sexteto que dirige el distinguido profesor D. Felipe Aramendia, ejecutará por primera vez en el concierto que tendrá lugar esta noche en el Nuevo Casino Eslava, un inspirado Andante Cantabile, composición del distinguido pianista de dicha Sociedad D. Valentin Larrea. (*El Eco de Navarra*, 1911-10-22)

1912ko otsailaren 16an eta 22an, hurrenez hurren, honako aipamenak egiten dira *El Eco de Navarra* egunkarian:

> En los bailes de máscaras que ha organizado la distinguida sociedad Nuevo Casino Eslava, y que se celebrarán en sus salones las noches del 18 y 20 del actual, el notable sexteto que dirige el distinguido profesor don Felipe Aramendia, reforzado con otros profesores, ejecutará un variado programa de bailes de los aplaudidos autores Lehár, Crémieux, Milock, etc. etc. y un elegante Two Step y caprichosa Polka Carnavalesca, originales del distinguido pianista de dicha sociedad don Valentin Larrea. (*El Eco de Navarra*, 1912-02-16)

Egun batzuk beranduago, otsailaren 22an, Larrearen konposizio alaien berri ematen du egunkari berberak:

> Entre las composiciones ejecutadas en el Casino Eslava durante las pasadas fiestas por la orquesta del Sr. Aramendia, figuraban algunas nuevas, originales del inspirado y notable pianista de dicho centro don Valentin Larrea, que mereció por esta nueva revelación de su competencia y buen gusto unánimes elogios de las muchas personas que las escucharon. Aun cuando el Sr. Larrea nos tiene acostumbrados

a frecuentes producciones musicales todas a cual mas delicadas y bellas, bien merece que por las recientemente dadas a conocer le felicitemos efusivamente. (*El Eco de Navarra,* 1912-02-22)

1912tik 1921era urtero uda garaian Aramendia boskotearekin Donostiako *Continental* hotelera joan zen Valentin, bertan egunero emankizunak egitera. Momentu hartan, hotel ospetsu eta luxuzko hau gaur egun Londres hotela aurkitzen den eraikinaren alboan kokatzen zen, hondartzara bista ezin hobeak zituela.

Anekdota gisara, bilobek kontatzen dutenez, aitonak behin baino gehiagotan aipatu omen zien Donostian aurkitzen zela Arthur Rubinstein pianista ospetsuarekin izaniko enkontrua. Rubinstein pare bat kontzertu eskaintzera etorria omen zen garaian nobleziaren epizentro zen hirira eta *Continental* hotelean hartu omen zuen ostatu. Larrea hoteleko harreran aurkitzen zela, Rubinstein bi manilazko mantoi barruan zituzten kaxa parearekin agertu omen zen eskaileretatik behera, bi emakume liraini berauek oparitzeko asmoz. Istoria txiki hau garaian Valentin Larreak bizitako giroaren islada zuzena izan daiteke. (Berazadi. E, Arakistainen, ll. 328-334)

1.3.4 Heldutasuna eta errekonozimendua

Valentin Larrearen piano-jotzaile lana mota askotarikoa zen, *Nuevo Casino Eslavan* izaten ziren kontzertuetan jo beharrekoa zen errepertorioa lantzeaz gain, inprobisatu, pieza berriak konposatu eta erakunde iruindar ospetsura etortzen ziren interprete famatuei kontzertuak pianoaz lagundu behar baitzizkien. 10go ilustrazioan ikus daitekeen moduan, garaiko bakarlari entzutetsu hainbatek egin zuen geldialdia *Nuevo Casino Eslavan* antolatutako kontzertuetan. Irudian, Madame


PROGRAMA DEL CONCIERTO DE VIOLIN

PARA EL DIA 16 DE MAYO DE 1933

Solista: Guillermo Kolbe

Primer violin concertino del BALLET DE MADAME ANNA PAWLOWA acompañado por el notable

Pianista: Sr. Larrea

I.

¡SI YO FUERA REY! ..... Adán
AIRES BOHEMIOS ..... Sarasate
DANZA ANDALUZA NÚM. 5 ..... Granados
BALLADE ET POLONAISE ..... Vieuxtemps

II.

MALAGUEÑA ..... Sarasate
HABANERA ..... Sarasate
ALBORADA BRETONA ..... Autor desconocido
LE CANARI (A petición) ..... Poliakin
GRAN JOTA ..... Nieve

A LAS DIEZ Y MEDIA DE LA NOCHE

10go ilustrazioa: Valentin Larreak 1933ko maiatzaren 16an eskainitako kontzertuko egitaraua. Iturria: artxibo familiarra

Anna Pawlowaren balleteko biolin-jotzaile nagusia, Guillermo Kolbe, ikus dezakegu.

Garai gogorrak bizitzea tokatu zitzaion Larreari, hogeigarren hamarkada distiratsuaren arrastoa atzean utzita, Gerra Zibilaren krudelkeriak heldutasunean sartua zela ezagutu zituen piano-jotzaile entzutetsuak. Afiliazio politiko nabarmenik izan ez zuen arren, behin edo behin ezagunen batek mundu politikoan sartzeko gonbitea egin zion. Beroni, ordea, ez zitzaion interesatu (Berazadi, M., Arakistainen ll. 437-438). Depurazio espediente posibleen berririk ez dugu eta zantzu guztien arabera, Valentinek bere lanean jarraitu zuen, gatazka zibila igaro ostean ere. 1949an, bere erretiroarekin eta *Nuevo Casino Eslava*n lanean eginiko mende erdia aitortu nahian, Iruñako Udaletxeak, Lanaren Domina eman zion. Hona hemen, 1949ko otsailaren 13an ospatu zen ekitaldiari buruzko oharra:

> Este notable compositor y pianista pamplonés ha sido galardonado con la Medalla del Trabajo como premio a una vida de esfuerzo y laboriosidad en el servicio del arte musical, al cumplir los cincuenta años en el desempeño del cargo de pianista del Casino Eslava.
>
> En el intermedio del Concierto Matinal de hoy le será impuesta la Medalla por altas jerarquías nacionales en el saloncillo del Excmo. Ayuntamiento. Y seguidamente, ya ostentando esta preciosa condecoración, dirigirá personalmente la interpretación por la Orquesta Santa Cecilia de dos obras suyas, un *Adagio* y un *Andante*, para instrumentos de cuerda, compuestas para el Ofertorio de la Misa de Santa Cecilia.
>
> Nuestra enhorabuena y aplauso al querido maestro.

Omenaldia jaso eta erretiroa hartu ondorengo urteak lasaiak izan ziren Valentinentzat. Konposatzen jarraitu zuen bere bizitzako azken uneetaraino. Bizitza luzea izanak, bere familia zabalaz gozatzeko aukera eman zion. Bere lanaren bultzatzaile nagusi diren eta dokumentuan zehar aipatu ditudan Maite Berazadi Larreak eta Elena Berazadi Larreak gogoan dituzte, bai, aitonarekin igarotako uneak. Kontatzen didate, aitonak laurogeita hamar urte beteak zituenean Iruñeko Gayarre antzokira, kolazko piano berri bat ekarri zutela. Berau probatzeko eta nola

zegoen ikusteko, Valentin Larreari deitu omen zioten, bere adina handia izanik ere, honek kriterioa zuelakoan (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 393-396). Musika zaletasuna ez zuen inoiz abandonatu, bere etxean irratia entzutea ohikoa zuen eta Felix Mendelssohnen piezak asko gustatzen omen zitzaizkion, bere ustetan publikoak behar baino gutxiago estimatzen zuen konpositorea baitzen. Hona hemen bere bizitzako azken urte horietan Elena eta Maiteren ama MªLuisari konposatzaileak idatzitako gutuna, bere zaletasunaren erakusgarri:

> Querida hija María Luisa: Tu carta de fecha 27 recibí con alegría y el día anterior de Jose Maria, viendo que todos estáis de salud estupendamente. Nosotros igualmente pues siempre que no haya alteración referente a la buena salud, vamos bien.
>
> ¿Qué tal Agustínn y Mirentxu y mis biznietos queridos Asier y Amaya? ¿Y en Zegama,mmis majas biznietas, bien?
>
> El otro día escuché a la orquesta Sinfónica Alemana y me gustó, 80 actuantes. Lo que tengo ganas de oir es a la Filarmónica de Berlin, a esa maravillosa agrupación de ciento y pico profesorazos que dirige el fabuloso Von Karajan: la mejor orquesta del mundo y su director el as de la batuta.
>
> Han dado en Madrid dos conciertos y en Barcelona otros dos: éxitos que no se pueden figurarse sin oírles; algo increíble. Nos contentaremos con leer las críticas de figuras maestras, lo mismo en Madrid como en Barcelona un mes antes no había en taquilla localidad alguna: costaba mil pesetas y todas las localidades en esa proporción, y en consecuencia mucho público sin poder oírles.

Osasun ona izan zuen gizona, itzaltzen joan zen eta 1970eko maiatzaren 10ean hil zen Iruñean. Garaiko zenbait egunkarik bere heriotzari buruzko oharrak argitaratu zituzten:

> En la madrugada del domingo falleció don Valentín Larrea Iturbe. Don Valentín era figura imprescindible en la vida musical pamplonesa, en el número 2 de la delantera del palco del Gayarre. Él era guipuzcoano de nacimiento y discípulo de Tragó en el Conservatorio de Madrid. Vino a Pamplona cuando el Casino Eslava abrió sus puestas. El Casino insertó anuncios en busca de pianista y el joven Larrea ganó el concurso-oposición. Desde entonces, 1898, durante cincuenta años, amenizó con sus conciertos diarios las tertulias de cientos de socios. Don Valentin Larrea,

último protagonista vivo de aquellos matinales sanfermineros ha muerto y con él acaba toda una época aurolada y nostálgica.

Azken 50 urtean, familian oroitua izan den arren, azken erreseinak adierazten duen bizitza iruindar mota baten azken protagonistaren lanak, tristeki, isilpean egon dira.

2 Ahanzturan eroria berreskuratzen

2.1 Pianorako lana lehen pausutzat

Ahanzturan erabat erortzen ez denak bizirik dirauela dio esaera batek. Valentin Larrearen musika isilpean egon da azken mende erdian. Larrearen alaba Mª Luisak 80. hamarkadan bere obra Eresbilen, Musikaren Euskal Artxiboan utzi ondoren, inork ez dio lan horiei erreparatu. 1970ko maiatzaren 10ean, musikaria hiltzearekin batera, bere pianoaren soinua eta konposatzeko erabiltzen zuen arkatzaren bizitasuna ere itzali egiten dira. Bere ilobek, aitonaren musikarako talentuaren berri izan arren, ez zuten orain artean bere musika entzuteko aukerarik izan. Itzalpean zegoen ondarea berreskuratzeko asmoz, 2019an hasi ziren zenbait pertsonengana jotzen familiako zenbait kide, aitonaren obra berpizteko asmoz.

Etxeko ganberan kontzertu txiki bat antolatzeko intentzio xumea zuten hasieran maisuaren bilobek. Lehendik ezaguna zuten Itsaso Aristizabal piano-jotzaile irundarrarena jo zuten lehendabizi. Berari aipatu zioten pianorako idatziak ziren obra zenbaitekin entzunaldi pribatu hau egitearen ideia. Lehen momentutik, partituren eskuizkribua ikusita, Aristizabalek ontzat jo zuen proiektua:

> Nik ezer egin baino lehen, partiturak ikusi nahi nituen, ez bainekien nolakoa izango zen musika. Orriak pasatzen hasi bezain pronto, itxura zoragarria hartu nion oraindik entzun gabea nuen musikari. Pieza bakoitzetik fotokopia bat eskatu nien, ez nuelako ondare horren erantzunkizuna nirea izaterik nahi. Pianoan jarri ordurako, oso hurbileko musika zela sentitu nuen (Aristizabal, I., Arakistainen, ll. 26-30)

Lehendabiziko irakurketaren ondoren, Aristizabalek eskuizkribuetan idatzita zegoena, programa digital bidez berridaztea eta txukuntzea proposatu zion familiari, beronen irakurketa errazteko asmoz. Bi hilabetez prestatu zituen piano-jotzaileak Larrearen zenbait pieza eta 2019ko ekainean izan zuten lehen aldiz bilobek berauek entzuteko eta gozatzeko aukera.

Aristizabalen etxean izan zen zita eta bertan ondorengo kontzertuetan interpretatuko ziren zenbait pieza erakutsi zizkien:

> Ekainean bildu nintzen bilobekin. Hemen agertu ziren bi ahizpak bere senarrekin. Emozioz gainezka zeuden, liluratuta. Hasi nintzen piano jotzen…dena zen irakurketa bat, tempoa ondo jarrita eta abar baina irakurketa, azken finean. Lehenengo obra jotzen hasi eta Maite, biloba, negarrez hasi zen. Beraientzat ez zegoen zerbait gorpuztea bezalakoa izan zen. Lehen ez zen existitzen musika hori beraientzat, beraiek ez zuten entzun inoiz. Momentu hartan, gorputza hartu zuen gauza batek. Sortu zen bat-batean eta izugarrizko emozioa sentitu genuen denok. (Aristizabal, Arakistainen, ll. 53-58)

Kontzertu intimo bat prestatzeko eginiko lehen saiakera, aitonaren lana publiko egiteko esfortzu bihurtu zen, Iruñako Udalarekin eta Zarautzko Udalarekin kontaktuan jarri baitziren familiartekoak. Bi hiriekin Valentin Larreak izan zuen lotura ikusita (bere bizitzako zatirik handiena igaro zuen Iruñan eta Valentinen alaba MªLuisa, Zarautzera joan zen bizitzera ezkondu ondoren). Piezen aukeraketa lana Itsaso Aristizabalena izan zen, beste behin. Berak dioenez "familiak nire etxean entzundako pieza guztiak jotzea nahi zuen, hain zeuden gustura emaitzarekin" (Arakistainen, ll. 62-63). Pare bat lan alde batera utzi eta egitarau bat prestatu zuen:

EGITARAUA:

· *Serenata*

· *Meditazioa*

· *Euskal motiboen inguruko sei preludio:*

·*Euskal sehaska kantaren erritmoa*

· *Valentinito. Balsa*

· *Charmant Valse-Boston*

· *Euskal ebokazioa*

· *Donostia. Zortzikoa*

· *Euskal-erromeriako giroa*

· *Bals erromantikoa*

· *Euskal klasiko purua*

· *Bertsolarien solasaldia*

· *Zortzikoa*

·*Gazteen itzulera erromeriatik*

· *Geno Bals lentoa*

· *Andantea, do maiorrean*

· *Novelette*

· *Erromantzea, solen*



NAFARROAKO ERRESUMAKO HIRIBURUA DEN **IRUÑA** TXIT PRESTU ETA LEIALEKO
BATASUNAREN PRIBILEGIOA
1423. URTEA

PIANORAKO KONTZERTUA, ITXASO ARISTIZABALEN ESKUTIK
VALENTÍN LARREA YTURBEREN OMENEZ
Irailak 4, asteazkena | 20:00 | San Zernin eliza

Valentín Larrea Yturbe (Gabiria 1876-Iruña 1970) musikagile eta piano-jotzailearen pianorako lanak joko dira kontzertu honetan. Musika-ibilbidea Iruñean garatu zuen musikari ezagun eta miretsia Eslava Kasino Berriko piano-jotzaile titularra izan zen 50 urtez (1898-1948). XX. mendeko lehen hamarkadetan Iruñeko *Quinteto Aramendia* hari- eta piano-talde ezaguneko kide izan zen. Garaiko musika-lehiaketetan sari ugari jaso zituen konpositoreak, askotariko lanak egiten zituelarik: konposizioak pianorako, harirako, txisturako; koru-musika, erlijio-musika...
Itxaso Aristizabal piano-jotzaileak haren errepertorio luzeko lan-sorta hautatua joko du, Nafarroako musika-ondaretik pieza batzuk gogora ekarriz eta aintzatetsiz.

PROGRAMA:
· Serenata
· Meditazioa
· Euskal motiboen inguruko sei preludio:
Euskal sehaska-kantaren erritmoa
Euskal-erromeriako giroa
Euskal klasiko purua
Bertsolarien solasaldia
Zortzikoa
Gazteen itzulera erromeriatik
· Lo-lo. Euskal sehaska-kanta
· Valentinito. Balsa
· Charmant Valse-Boston
******
· Euskal ebokazioa
· Donostia. Zortzikoa
· Bals erromantikoa
· Erromantzea, solen
· Andantea, do maiorrean
· Novelette
· Geno. Bals lentoa

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

PRIVILEGIO DE LA UNIÓN
DE LA MUY NOBLE Y LEAL **CIUDAD DE PAMPLONA** CABEZA DEL REYNO DE NAVARRA. AÑO 1423

CONCIERTO PARA PIANO DE ITXASO ARISTIZABAL
HOMENAJE A VALENTÍN LARREA YTURBE
Miércoles 4 de septiembre | 20:00 h | Iglesia de San Saturnino

En este concierto se interpretarán obras para piano del compositor y pianista **Valentín Larrea Yturbe** (Gabiria 1876-Pamplona Iruña 1970). Conocido y admirado músico que desarrolló su carrera musical en Pamplona, siendo durante 50 años (1898-1948) pianista titular del Nuevo Casino Eslava. Durante las primeras décadas del siglo XX formó parte del conocido conjunto pamplonés de cuerda y piano *Quinteto Aramendia*. Fue un compositor muy laureado en los certámenes musicales de su época, siendo su obra muy variada: composiciones para piano, cuerda, txistu, música coral, religiosa...
La pianista **Itxaso Aristizabal** ejecutará una selección de obras para piano de su amplio repertorio rescatando del olvido y poniendo en valor piezas del patrimonio músical navarro.

PROGRAMA:
· Serenata
· Meditación
· Seis preludios sobre motivos vascos:
Ritmo de canción de cuna vasca
Ambiente romerí vasco
Clásico vasco puro
Diálogo de los bersolaris
Zortzico
Regreso juvenil de la romería
· Lo-lo. Canción de cuna vasca
· Valentinito. Vals
· Charmant Valse-Boston
******
· Evocación vasca
· Donostia. Zortzico
· Vals romántico
· Romanze en Sol
· Andante en Do Mayor
· Novelette
· Geno. Vals lento

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

11go ilustrazioa: Iruñeko San Zernin elizan, 2019ko irailaren 4an egindako Valentin Larrea Iturberen omenezko kontzertua. Iturria: artxibo familiarra

2019ko irailaren 4an Iruñako San Zernin elizan jarri zen Valentin Larrearen lana berreskuratzeko eta ezagutzera emateko egin beharreko bidearen lehen harria. Kontzertuan izan ziren senide ugari, baita Valentin Larrea Auzmendi Argentinara bizitzera joandako Larrea maisuaren semearen alaba ere, Ana María Larrea, lehenago aipatu dudan moduan. Kontzertuan sentitutakoa deskribatzeko Aristizabalen hitzetara joko dut berriro ere:

> Niretzat izugarria izan zen. Nik eman nion paperean dagoen horri bizia. Beste kasuetan ez duzu sentsazio hori izaten, klasikoen obrak hor daude eta badira grabazioak eta bertsioak sarean. Gainera, ohitu gara lan baten bertsio ugari entzutera. Eta kasu honetan ez zegoen ezer, sortu behar nuen nik eta hori niretzat handia izan da. Politena, ezerezetik zerbait ateratzea (Aristizabal, Arakistainen, ll. 95-100)

Iruñako kontzertuaren arrakastaren ondoren, Zarautzko kontzertua prestatzen hasi ziren. Bertan, gabon garaia zela aprobetxatuz, Zarautz Abesbatzaren laguntza izan zuten, Larrearen gabon kanta bat, *Villancico al niño Jesús* interpretatzeko. Abesbatzaren zuzendaria, Jaione

Escudero izan zen. Kontzertu hau, Modelo Aretoan 2019ko abenduaren 13an izan zen. (Ikus 12go ilustrazioa)

12go ilustrazioa: Zarauzko Modelo Aretoan, 2019ko abenduaren 13an egindako Valentin Larrea Yturberen omenezko kontzertua

Pianorako musika zabaltzeko asmoz, obren digitalizazioa egitea eta ordenagailuko programa baten bitartez txukuntzea Itsaso Aristizabalen lana izan zen. Ondoren, Donostiako Francisco Escudero musika kontserbatorioan uztea otu zitzaion familiari. Dohaintza honen bitartez, piano ikasketak egiten diharduten gazteei Valentin Larrearen obra gerturatzeko ideia burutzen zuten. Hala dio Itsaso Aristizabalek, zeina kontserbatorio horretako irakaslea ere baden:

> Hori egin genuen. Hemen dago (koadernoa erakutsiz) fotokopiatu partiturak eta enkoadernatu. Junkal Guerrero irakaslearekin ibili nintzen egun batean pieza bakoitza ze piano mailatan ikasi zitekeen sailkatzen. Familiak, azken finean, bere aitonaren musika zabaltzea nahi du. Zabaldu, hemendik edo handik. Eta ideia zen piano ikasleentzat eskura jartzea bere obra. Ikusi duzu, orokorrean ez da musika zaila, eta zenbait pieza gazteek jotzeko egokiak dira (Aristizabal, Arakistainen, o. 4, ll. 120-124)

2.2 Sokarako lana eta diska

Konpositorearen bizitza eta bere konposatzeko modua oso hurbil zihoazen bi bide ziren. Bere pausu bitalek zerikusi handia izan zuten bere idazkera musikalean. Pianorako musika jada interpretatua izan zen, bi kontzertu horietan. Valentinen aita Melitonen instrumentu nagusia izan zen organorako lanak ere interpretatze-bidean zeuden eta orain Valentinek bere bizitzan izan zuen beste alor bati heldu nahi zion familiak. Sokarako lanak arakatu, transkribatu eta

txukuntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiarengana jo zuten laguntza eske senideak, Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboaren bitartekaritzarekin. Angel Briz arduratu zen lan hauek txundu eta ordenagailura pasatzeaz. Musika hau interpretatu zezaketen musikarien bila, berriz, Itsaso Aristizabalen laguntzaz, Oiasso Kameratarengana jo zuten:

> Galdetu zidan familiak ea zeinen bitartez egin zitekeen hori. Joan nintzen galdetzen ezagun hainbati eta Oiasso Kamerata otu zitzaidan. Jada osatuta dagoen talde bat denez eta hortik, baita ere, osatua dagoen boskote bat ateratzen denez, beraiek proeiktua gauzatzeko arazorik ez zutela izango iruditzen zitzaidan. Lehenik ere Mokoroaren musikarekin zerbait eginda omen zuten.(Aristizabal, Arakistainen, ll. 135-140)

13go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturbe jaio zen etxe atarian jarritako oroigarria

Covid-19aren pandemiak erabat baldintzatu zuen 2020ko udaberria eta Larrearen sokarako lanek udazken aldera arte itxaron behar izan zuten entzunak izan zitezen. Zehazki, 2020ko irailaren 20an antolatu zen Gabiriako elizan konpositore gabiriarraren harizko orkestrarako obraren kontzertua. Eguna baliatuz eta Larrea familia bere aitonaren sorterrira bueltatzen zela kontuan hartuta, Valentin Larrea Iturbe jaio zen etxean, iraganean udaletxea izana berau, oroitzapenezko plaka bat jartzea otu zitzaien konposatzailearen senideei. Gabiriako udalak, bere alkate Oier Oiarbide buru zuela, segituan onartu zuen ekimena.

Gabiriako elizan interpretatutako egitaraua honakoa izan zen:

· *Romanza en Sol*……Biolina eta pianoa

· *Novelette, caprice para violín y piano*……...Biolina eta pianoa

· *Ensueño*……....Biolontxeloa eta pianoa

· *Serenata española*…….……...…….Biolina eta pianoa

· *Capricho vasco*……...……...……Harizko boskotea

· *La perla del océano*……....…….....Harizko boskotea

· *Andante en Do*……..….Harizko laukotea

· *Reverie*……...……Harizko orkestra

· *Andante en Do*……...……Harizko orkestra

· *Adagio para cuerda*…….……Harizko orkestra

· *Minuet*…….Harizko orkestra

· *Andante en Do mayor*……..……Harizko orkestra

· *Preludio Vasco nº3*……..…Harizko orkestra

Sokarako kontzertu hura antolatzeko lanetan zebiltzala, musika grabatzea eta disko batean editatzea bururatu zitzaien Valentin Larrearen familiartekoei. Beste pausu bat ematen zen orduan Larrearen obra berreskuratzeko urtebete lehenago, Iruñako kontzertuarekin hasitako bidean. Lan musikal batzuk betirako diska formatuan grabatuta gelditukо ziren. Halaxe izan da, familiak finantziatutako proiektu batean, hamahiru piezaz osaturiko lana gauzatu baidute. Diskako liburuxkak jasotzen dituen hitzak gogora ekarriz:



14go ilustrazioa: *Valentin Larrea Yturbe, Gabiriako kontzertua, hari orkestrarako obra* diskaren azala

> Aurkikuntza liluragarria izan da Valentin Larrea Iturbe piano jolearen obra. Ahanzturatik atera eta argia berriz ikusi du eta gaur eguneko euskal musikaren baitan txertatua izan da behin betiko. Ez gara hemen hasiko Larrearen obra eta lorpenak aitortzen. Diska honek bere lan ugariaren zati bat baino ez du jasotzen… Doinu finek lerrokatzen dute diska, entzulea gozaraziz. Familairen kasuan, arima eztituz (Berazadi, F., 2021)

2.3 Eresbilen eta Nafarroako artxiboan dohaintzak

Sokarako musika grabatu ondoren eta Valentin Larrearen zenbait eskuizkribu oraindik familiak etxean zituela kontuan hartuta, konposatzailearen partitura zenbait Iruñean aurkitzen den eta Nafarroako errege-erreginen jauregia bere egoitza modura duen Nafarroako Artxibo Orokorrean uztea erabaki zuten bere senideek, dohaintza hau 2021ko martxoaren 23an gauzatu zelarik. Pertsona baten funts dokumentala zaintzeko eta beronen biziraupenerako, dokumentu guztiak batuta izatea gomendagarria da baina Larreak Iruñako hiriarekin izan zuen harremana kontuan izanda, familiak horrela izatea erabaki du. Orain, Larrearen musika gertutik ezagutu zituen bi lurraldeetan ondo gordeta aurkitzen da. 1980ko hamarkadan, Valentin Larrearen alaba zen Maria Luisak, aita hil zenetik Txapitela kaleko bere logelan aurkitzen ziren dokumentuekin zerbait egitea pentsatu zuen, ondare hau galtzeko zorian egon zitekeela iritzita. Errenterian aurkitzen den Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboan utzi zituen Iruñako etxean zeuden aitaren partitura gehienak. Bertan egon dira familiak berauek argitara ateratzea eta Valentin Larrearen musika ezagutzera ematea erabaki duen arte. Euskal konposatzaileen lana gordetzeko artxibo honek izan duen garrantziaren beste froga bat antzeman dezakegu musikari gabiritarraren kasuan.



15go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen zenbait eskuizkribu, Nafarroako Artxibo Orokorrean. Iturria: Elena Berazadi

Neronek familiari artxibora laguntzeko aukera izan nuen. Bertan utzi zituzten Valentin Larreak pianorako idazten zituenean normalean egin ohi zituen bi eskuizkribuetako bat. Beste aleak, Musikaren Euskal Artxiboan, Eresbilen, aurkitzen dira. *Nuevo Casino Eslava*ko partiturez beteriko funtsa duela zenbait hilabete iritsi da artxibo nafarrera eta partitura horien klasifikatze-lanetan zebiltzala, Larreak bere piano-jotzaile lanetan erabilitako zenbait partitura bilatu dituzte bertoko arduradunek. 15go ilustrazioan ikusi daiteke bilatu berri diren partitura horietako bat. Zinemako soinu banden konponketa desberdinek edota estilo hainbateko piezek, Valentin Larrearen zigilua eta sinadura daramate. Pixkanaka funts hori argitzen joaten den heinean, Larrearen lanari buruz informazio berria izaten joango gara. Bere bizitzaren eta lanen puzzle aberatsa osatzeko pieza garrantzitsua, dudarik gabe.

16go ilustrazioa: Valentin Larrea Iturberen senideak eta Nafarroako Artxibo Orokorreko arduradunak eta ni neu, 2021eko martxoaren 26an. Iturria: Elena Berazadi

3 Valentin Larrearen organorako musika

Valentin Larrearen pianorako musikarekin zerbait egin nahian zebiltzan bitartean, familiak bazerabilen buruan aitonak beste zenbait instrumenturentzat idatzi zuen musika berreskuratzea eta argitara ateratzea, kontzertuekin eta dibulgazioarekin. Bide horretan eta Valentin Larreak organoarekin izan zuen harremana, arestian aipatua, kontuan izanda, Esteban Elizondo maisuarengana jo zuten. Azken honek, bere lan karga pertsonala handia zela argudiatuz, nigana bideratu zituen Elena eta Maite ilobak. 2020ko urtarrilaren 27an izan nuen korreo bidez Valentin Larrearen berri. Mezuan bere aitonaren ibilbidea azaltzeaz gain, 2020a beronen heriotzaren 50. urteurreneko urtea zela-eta organo kontzertu bat antolatzeko zuten ideia azaltzen zidan Elenak:

> Aitonaren musika gehiago ezagutu nahi dugu. Bere organorako obra atera nahi genuke eta hau da zuri idazteko arrazoi nagusia. Aurten Valentin Larrearen heriotzaren 50. Urteurrena izango da eta organo kontzertu bat antolatzea pentsatzen ari gara (E. Berazadi, Arakistainen)

Organorako lana errepasatzen ari nintzen bitartean, interesgarria iruditu zitzaidan Valentin Larrearen bizitzan arakatzea eta beronen berreskurapen bidean, nire alea jartzea. 2020ko otsailaren 3an elkartu nintzen lehen aldiz familiako bi kiderekin, lan honetan aipatu ditudan Elena Berazadi Larrea eta Maite Berazadi Larrea ahizpekin. Beraien lanerako gogoa eta aitonaren obrarekiko zuten konpromesuak txundituta utzi ninduen. Altxor ezkutu bat esku artean zutela iruditzen zitzaien eta musikarien laguntzaz berau deskubritu nahi zuten, ondorengo belaunaldiek ere, bai familiarteko zein interesa eduki lezakeen edonork, izan zezaten Larrearen konposizioen eta talentuaren berri. Mahai hartan erein zen lan honen lehen hazia.

3.1 Bere garaiko organoaren baitako mundua

Meliton Larrea, Valentin aita, Gabiriako Andre Maria elizako organista izan zen, dokumentu honetan lehenago aipatu dudan moduan. Bere seme Valentinek musikarekin izan zuen lehen kontaktua herriko elizan aurkitzen zen organo barrokoaren bitartez gauzatu zela

pentsatu dezakegu. Aitak irakatsi zion gaur egun oraindik tenplu bertan aurkitzen den Pedro Albisua organogileak 1804an eraikitako organoa jotzen. Ataunen Lorenzo de Arrázolak 1761ean eraiki zuen organo barrokoa, Gipuzkoako eremuan aurkitzen diren instrumentuetan zaharrenetarikoa da eta barroko garaiko estetikaren baitan, kalitate handiko organotzat joa izan da beti. Organo honen antzekoa da Gabiriako, hamarkada batzuk beranduago sortua izan arren. Valentin Larreak instrumentu honetan bere hatzak ezartzerako, ezarriak ziren organogile frantzes ospetsuen organoak probintziako zenbait lekutan. Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikako Cavaillé-Coll organoa (1863), Tolosako Andre Mariaren Parrokiako Stoltz-Fréres organoa (1885), kasurako.

Gabiriako organoa, trantsizio garaiko dela esan daiteke, barrokoaren eta erromantizismoaren arteko zubitzat jo dezakegu gaur egun martxan den instrumentua. Bertoko erregistroak goikoetan eta baxuetan banatuta daude, barroko garaiko ohiturari jarraituz. Teklatu banatua deitzen zaio erregistroak banatzeko modu honi. Batailako tronpeta horizontalak ditu, iberiar organo zenbaiten antzera. 54 nota ditu organoak eta pedalean 12 sakagailu, oraindik pedal osoa eta kromatikoa ezarri gabe zegoenaren seinale garbi gisa. Ataungo organoaren kaxa dotorearen distirarik ez du Gabiriakoak, bere fatxada eta kaxa polikromatu gabeko zurarekin eginak baitira. Hona hemen, Gabiriako organoaren erregistro konposizioa[3]:



17go ilustrazioa: Gabiriako Andre Maria elizako organoa. Iturria: Goiberri ataria (www.goiberri.eus)

[3] Elizondo, E. (2010). *Organoa Gizpukoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, o. 68.

Baxuak	Goikoak
Flautado	Flautado Mayor
Flautado de Violón	Flautado de Violón
Octava	Flauta Travesera
Nasardo en Octava	Octava
Docena	Tapadillo
Nasardo en Docena	Docena
Quincena	Quincena y Decinovena
Nasardo en Quincena	Lleno (3h.)
Decinovena	Címbala (3h.)
Lleno (3h.)	Trompeta Magna
Címbala (3h.)	Trompeta Real
Trompeta Real	Clarín en Batalla
Bajoncillo en Batalla	Oboe en Batalla
Chirimía en Batalla	Corneta (4h.)

18go ilustrazioa: Gabiriako Andre Maria elizako organoaren erregistro konposizioa. Iturria: *Organoa Gipuzkoan*, Esteban Elizondo (2010)

Betidanik organoarekin harreman estua izan duen eremua izan da euskalduna. Organogile ugari izan dira gaur egun organo bilduma aberats bezala jotzen dena osatzeko bere lana eskaini dutenak, XVII. mendetik hasita XX. mendeko azken hamarkadetara arte. Fray Joseph de Echevarriak organo barroko iberiarra definitu zuen, esaterako eta Aquilino Amezua azpeitiarrak organo erromantikoa indartu eta borobildu egin zuen. Estatu mailan, berriz, Organería Española S. A. enpresak eraikitako organo ugari topatu ditzakegu. Azpeitian bere tailerra zuen enpresak ondu zuen, besteak beste, Artzai Onaren Katedraleko organo izugarria,

Espainia mailan funtzionamenduan aurkitzen den instrumenturik handiena. Europa mailan tradizio handia izan da organoaren baitan, ugariak izan dira organo eskolak eta Euskal Herriko egoera benetan adierazgarria da estatu mailan. Gaur egun eskura dugun ondareaz jabetzearekin soilik, esku artean dugun aberastasuna berretsi dezakegu.

Organo jotzaileak ere ugariak izan dira Euskal Herrian. Instrumentu egokiak egotearen ondorioetako bat, ikasle abilak izatea da eta kasu horretan gure inguruetan, maisu hainbat izan ditugu erreferente. Besteak beste, Josu Okiñena piano-jotzaile, irakasle eta ikerlariak duela pare bat urte editatutako *The History of Basque Music* liburuan hainbat pertsona aipatzen dira:

> As regards the organists, there are the chapel masters Nicolás Ledesma, the Pérez de Albéniz father and son, and the two Santestebans, key figures in Bilbao and Donostia-San Sebastián nineteenth-century musical life, to which we could add the Bizkaian Valentín Mª de Zubiaurre, and the generation of Basque organists who studied in Madrid with Hilarión Eslava, such as Avelino Aguirre (1838-1901) and Toribio Elezgaray (1840-1910). (Okiñena, 2019)

Okiñenak aipatzen dituen musikariez gain, Valentin Larrearen garaikoak diren zenbait organista aipatuko nituzke: Jesus Guridi (1886-1961) gasteiztarra, José María Usandizaga (1887-1915) donostiarra edota Nemesio Otaño (1880-1956) azkoitiarra, esaterako, beste hainbat musikari handiren artean. Hiruen organorako produkzioa eta beste hainbat maisurena, Esteban Elizondo musikari, irakasle-ohi eta ikerlariak bildu zuen *Cien años de música para órgano en el País Vasco y Navarra* liburuan. Bertan aurkitu dezakegun testuetako batean, bere ikerketaren ondorio gisa, eremu euskaldunak organoarekin izan duen harreman estua nabarmentzen du:

> Gune geografiko berean jatorria duten hainbeste organorako musikagile izatea eta beren era askotako sorrera musikal aberatsen ikerketen ondorioak, badira nahiko elementu Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroak osatzen duten gunean eragin erromantikoa duen organoko konposizio eskola autoktono bat garatu denaren hipotesia onartzeko. Bere ikerketak, bertakoak diren berezitasunak eta beste herrialdeetako eskoletatik bereizten diren ezaugarriak dituela, adierazten du, homogeneotasun gradu garrantzitsu batekin. Eskola autoktono honen oinarrizko ezaugarrietako

askok ordea denboraldi historiko berean zehar espainiar estatuko gune ezberdinetako musikagileek gauzatutakoarekin berdintasunak baditu. (Elizondo, 2008)

Organorako musika estilo autoktono horren erakusle nagusienetako zenbait aipatu ditzakegu. Besteak beste, Jesus Guridiren *Tríptico del Buen Pastor* lana nabarmenduko nuke. 1954an, Donostiako Katedralean aurkitzen den eta lehenago aipatu dugun organoa inauguratzeko antolatu zen konposizio lehiaketan saritua izan zen piezak hiru atal ditu eta programadun musika gisara ulertu daitekeen obrak, espresibitate handia du, organoaren baliabide desberdinak ustiatzen dituelarik. Gerraosteko lanak, modernismoaren eta idazkera tonal zabal baten elementuak ditu.

3.2 Larrearen organorako piezak

Euskal Herrian eta Nafarroan organogintzak eta organorako obren konposizioak gaurdaino izan duten tradizioa azaltzeak, Valentin Larreak bere baitan ezagutu izan zuena azaltzeko balio digute. Madrilen organo ikasketak, dokumentu honetan lehenago aipatua izan den moduan, Ildefonso Jimeno de Lerma irakaslearekin egin zituen. Hilarion Eslava zendu zenean, bere nahiei jarraituz, Jimeno de Lerma izendatu zuten San Fernandoko Arte Ederren Akademiako partaide. Pertsonaia ezagunak bere jakinduria transmitituko zion aitaren partetik organoarekin lehen irakaspenak jaso zituen Larreari. Valentin Larrearen organorako obra ez da zabala baina nabarmendu beharrezkoa da, konpositoreak instrumentuarekin izan zuen harremana kontuan izanda. Organoa instrumentu bakarlaritzat duten lanak bost dira orotara:

· ***Elevación y Plegaria*** (1894an idatzia)

· ***Preludio, Adagio y Fuga*** (1909an idatzia)

· ***Andante religioson*** (1914an idatzia)

· ***Andante en Do mayor*** (1961ean idatzia)

· ***Marcha nupcial*** (1961eko irailean idatzia, bere iloba Javierren ezkontzarako)

Ikus dezakegun moduan, kronologikoki zerrendatu ditut obrok. Datek erakusten digute, Larrearen konposatzaile ibilbidean beti egon zela presente organoa eta garai desberdinetan idatzi zituela instrumentuarentzat lanak. Bestalde, motibo erlijiosoen presentzia ere garrantzitsua da bere organo bakarlarirako musikan. Obra hauetaz gain, bere funts pertsonalean amaitu gabe dagoen *Fuga* bat aurkitu daiteke. Obra honen azalean irakur daiteke konpositoreak garaian idatzitako ohar bat:

> Trabajo hecho en 9 horas, solamente con el tema dado por el tribunal, para los concursos de 6º y último año de Órgano en el Conservatorio de Madrid, el día 2 de junio de 1898, bajo la dirección del eminente Maestro y celoso Director de dicho centro Don Ildefonso Jimeno de Lerma, por su discípulo Valentín Larrea. (Larrea, *Fuga para órgano*)

Partituren behaketa eta analisia egin ostean zenbait ondorio atera ditzaket Valentin Larrearen organorako idazketari buruz:

· Alde batetik, pianoaren influentzia nabarmena aurkitu daiteke lan hauetan. Organoaren Pedalierraren erabilera, alde batetik, ez da oso ohikoa. Bi lan aurkitu ditzakegu ordurako organoaren literaturan César Francken eskutik oso hedatua zegoen pedalierraren ahots propioarekin. Gainontzeko obrak bi pentagramatan idatzita daude, pianorako ohiko idazketa hartuz organoarentzako. Lan hauetan erregistro grabeenean *Contra* hitza erabiltzen du, zenbait organotan aurkitzen diren pedaleko sakagailu primitiboak erabil daitezen. Pedala, errefortzu modura erabiltzen du, akordeei oinarrizko base bat emateko, pedalean linea melodikorik sortu gabe. Bestalde, idazkeraren testurek ere pianoa gogorarazten dute. Bi eskuetarako erabiltzen ditu oktaba jarraiak,



18go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Preludio, Adagio y Fuga* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

adibidez. *Andante en Do mayor* obra, bestalde, pianorako idatzia ere badu Larreak, organorako moldatu egingo zuen soilik, seguru aski.

· Bestetik, armonia erromantikoaren erabilera nabarmendu dezakegu. Pianorako lanetan bezala, Valentin Larreak erabilitako armonia mundu tonalean kokatu dezakegu, sartu-irtenik ez baitu egiten lengoaia modernoago batera. Zentzu honetan, bere garaikide izan ziren beste zenbait musikarik organo idazkerari eragin zioten aldaketa, Tomas Garbizuren lan kromatikoak edota Jesus Guridiren armonia zabala izanik erakusle, ez zuen jarraitu. Berak ezagutu zuen Gabiriako organo barrokoaren influentzia izan dezake erabaki honek arrazoi. Hala ere, Madrilen ikasketak egin zituen garaian, estilo erromantikoa zuten instrumentuak jotzeko aukera izango zuela pentsatu daiteke. Idazkera polifonikoago bat antzeman daiteke Larrearen obran, melodiaren garrantzia ahaztu gabe baina bertikaltasuna kontuan izanik, lehen aipatu ditugun akorde eta oktaba jarraituekin.

· Erregistrazioaren alorra, nahiko librea da Valentin Larrearen organorako musikan. *Andante religioso* obran ikus ditzakegu ohar konkretuenak. Bi teklatuetan erabili beharreko jokuen izenak jartzen ditu partituraren goialdean (Ikus 19go ilustrazioa). Lehenengo teklaturako *Flautado 8'* oharra idazten du, bigarren teklaturako *Flautado dulce* jarriz. Obra horretaz aparte, gainontzeko lanetan dinamikak adierazteko espresio zenbaitez baliatzen da Larrea; *brillante*, *espresivo* edo *menos* adierak han eta hemen aurkitzen ditugu Larrearen piezetan.



19go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Andante Religioso* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

· Valentin Larreak bere musika materiala behin baino gehiagotan aprobetxatzen zuenaren zantzuak frogatzen dizkigu *Andante en Do mayor* lanak. Pianorako idatzia duen beste lan baten oso antzekoa da pieza hau. Organorako bertsioan, ezkerreko eskuarentzat idatzitako akordearen nota fundamentala errepikatzen du pedalak, 20go ilustrazioan ikusi daitekeen moduan.



20go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Andante en Do mayor* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

· Forma aldetik, pieza laburrak dira Valentin Larreak organorako idatzi zituenak. Horrexegatik, pieza ugarik ABA egitura jarraitzen dute, lehen atalaren eta bigarren atalaren artean tinbre, bolumen eta karaktere aldaketa bat ematen delarik. Lehen aipatu dudan moduan, hainbat aldiz Larreak bere lanetan espresio dinamikak idazten ditu eta beraien bitartez, piezaren egiturako atal bakoitzari eman nahi izan zion erritmo eta izaera aurkitu ditzakegu. Mugimendu desberdinez osaturiko lanak ere baditu Larreak, *Preludio, Adagio y Fuga* edo *Elevación y Plegaria*, kasurako. Garaiko organo konposatzaileen influentzia garbia antzeman dezakegu alor honetan. Besteak beste, Cesar Franckek 1859 eta 1862 artean sortutako sei piezen barruan idatzitako *Prelude, Fugue et Variation* lana edo XX. mendean, Marcel Dupré organo jotzaile eta konposatzaileak ondu zuen Cortège et litanie (1922) pieza ederki ezagutuko zituen, seguraski, Valentin Larreak eta izan daiteke berauen influentziaz, bere organorako lanak atal desberdinetan banatzea erabaki izana.

· Piezen tonalitateei dagokienez, denetik aurkitu dezakegu Larrearen organorako piezetan. *Andante en Do mayor* piezaren adeitasuna, *Andante Religioso* lirikoaren Mib Maior bizia, *Preludio, Adagio y Fuga* hiru ataleko lanaren hasierako Do minor dramatikoa, parte zentraleko Lab Maior koloretsua eta amaierako Fugan erabiltzen den Fa Maiorra. *Marcha Nupcial* pieza, bestalde,

bereziki bere bilobaren ezkontzarako sortua, akorde handiz eta solemnitatez beteriko Do Maior batean dago idatzia. *Elevación y Plegaria* lanak bi zati kontrajarri ditu, lehena Sib Maior argitsuan eta bigarrena, *Plegaria*, Fa minor indartsuan.

· Akordeen erabilera oso ohikoa da Valentin Larrearen organorako musikan. Detaile honek ere bere piano jotzaile fazeta ekartzen digu gogora. Organoan, soinua mantentzeko pedalaren faltan, *legato* erreal bat bilatu behar izaten da, nota batek besteari jarraitu behar izaten dio, tartean isilunerik utzi gabe. Akordeen segida hauek nola jo erabaki beharko du interpreteak, agian ezingo baita konposatzaileak idazten duen ligadura osoa mantendu.



21go ilustrazioa: Valentin Larrearen *Marcha Nupcial* piezako atala: Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa

Aipatu ditudan puntu hauek kontuan izanda, Valentin Larrearen organorako lanarekin etorkizunean proiektu interesgarri bat egin daitekeelakoan nago. Organo erromantiko egoki bat topatuz eta instrumentu hau akonpainamendura bideratuta Larreak idatzi zituen ahotserako beste zenbait piezarekin, kontzertu egitarau txukuna ondu daiteke.

Bestalde, eta lan honen emaitz eta ondorio gisara, Valentin Larrearen lana eta bizitza laburbiltzen dituen hitzaldi musikatu bat antolatzea egokia izango litzateke. Bere jaioterri izan zen Gabirian edota hainbat urtez bere familia hartu zuen Iruñan. Berreskurapen bidean, garrantzitsua litzateke, ekimen hau aurrera eramatea. Lan hau, gauzatu daitekeen ikerketaren

froga txiki bat besterik ez da. Sarreran aipatu dudan *Nuevo Casino Eslava*ko artxiboan, Valentin Larreari buruzko dokumentu ugari topatu genitzateke, berauekin bere biografia zabalduz eta detaile gehiagorekin berau kontatuz. Horrexegatik bada, nire proposamen gisa geratu bedi Larrearen lanekin egin daitekeen kontzertuaren eta hitzaldiaren ideia.

Pianoaren influentzia handiz eta garaiko estiloaren zenbait ezaugarri bereganatuz, Larreak bere katalogoan ahots propioa duten piezak ondu zituen ezagutu zuen lehen tekladun instrumentuarentzat, Gabiriako elizan aurkitu zuen tutuz jositako altxorrarentzat.

Ondorioak

Musika klasikoaren historian zehar, ohikoa izan da konposatzaile, interprete edota musika arloko profesional baten heriotzaren ostean, bere figura ahanzturan erortzea. Garaien aldaketak, estetika berrien gailentzea dakar eta etengabean gauza berriak sortzen ari den industria kultural anitz baten bueltan, gauza ugari joaten da zakarretara, beronen kalitatea ondo neurtua izan gabe. Nire lana, berreskurapen bide luze baten hasiera besterik ez da. Ikerketa lanetik ondorioztatu daiteke, alajaina, bidea egiteko aukera badela, Valentin Larrea Iturberen itzala ez baita erabat galdu. Dokumentuek, prentsa errekorteek, sariketetako aktek eta nire lana ontzeko erabili ditudan beste zenbait baliabidek ongi frogatzen dute bere garaian pertsonaia garrantzitsua izan zela Larrea alor hainbatetan: pedagogikoan, ikasle abilen izenak agertu baitira; interprete gisa, egitarau eta erreseinek hala erakusten digutelako eta hiriko zenbait instituziorekin, *Iruñeko Orfeoia* edota *Los Amigos del Arte* elkartea, kasurako, aberatsa izan zelako eta konpositore bezala, sariketa ugari lortzeaz gain, bere lanak joak eta ospatuak izan zirelako.

Nire lanaren ondorio nagusitzat jo dezaket Valentin Larrearen biografia osatu izana. Orain artean ezer sendorik publikatu gabe zegoen gabiriako konposatzaileari buruz eta aipatu ditudan erreseina hainbaten laguntzaz, bere ibilbide bitala marrazteko aukera izan dut. Hori bakarrik ez, ibilbide hau zati edo etapa koherentetan banatzeko ideia gauzatu dut. Dokumentuek erakusten zidatenari jarraituz, bere bizitza hiru etapa nagusitan sailkatu dut, ondoren etorri daitezkeen ikerketa posibleentzat marko kronologiko bat ezarriz.

Beste alde batetik, euskal musikariak azken bi urtean bizi izan duen berragertzea azaltzeko baliatu dut lan hau. Lanerako grina duen familia batekin topo egin ondoren, beharrezkoa iruditu zait beraien ahaleginak neure egitea eta berreskurapen prozesuaren baitako mugarriak lan honetara ekartzea.

Azkenik eta beste ondorio bat azpimarratuz, Larrearen organorako obra aurkeztu eta komentatzen da lanaren kapituluetako batean. Proposamen zehatz bat ere gauzatzen dut, Valentin Larrearen bizitza eta lana azalduko lituzkeen hitzaldi musikatu bat egiteko aukera aipatuz. Garrantzitsua baita, ahanzturan eroria izan den konposatzaile baten musika jotzeaz gain, bere ingurua eta kontextua ezagutzea.

Gauzak horrela, familiak gaurdaino egin duena txalotzekoa da, instituzioetako ateak jo eta pertsona espezializatuen bidetik, bere senitarteko artistaren oroimena berpiztu baitute. Nire aportazioa ez nuke nahi lan hau bere azken orrira iristean amaitzea. Valentin Larrearen organorako obrarekin kontzertu bat eskaintzea gustatuko litzaidake, lan honi jarraipena eta bukaera praktiko bat emateko asmoz. Bere bizitzan organoak utzitako arrastoa sakona izan zen eta esku artean aprobetxatu beharreko aukera bat dugula iruditzen zait. Hitzaldi gehi kontzertu bat egitearen ideia ere egokia izan daiteke, materiala badagoelako eta beronen dibulgazio eta zabalkunderako lehen harria delako lan hau.

Bibliografia eta iturriak

Bibliografia

Berazadi, F. (2021). [Aurkikuntza liluragarria…]. In V. Larrea, *Valentín Larrea Yturbe, Gabiriako Kontzertua, hari orkestrarako obra*. Gabiria: Berazadi-Larrea sendia

Elizondo, E. (2007). Organorako musikaren ehun urte Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroan. In E. Elizondo (Ed.), *Cien años de música para órgano en el País Vasco y Navarra*. Donostia: Duo Seraphin, 2007.

Elizondo, E. (2010). *Organoa Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Maiz, A. (2013). Gabiriako eskolak 100 urte. *Makilari, 24*, 4-13.

Maiz, A. (2020): *Goazen Gabiritar danok*. Gabiria: Gabiriako Udala.

Nagore, M. (1994). *Algunos aspectos de la vida musical en Pamplona a finales del siglo XIX*. Nafarroako Kondairaren hirugarren batzarre orokorreko aktak. Iruña: Vianako Printzea Erakundea.

Okiñena, J. (Ed.). (2019). *The History of Basque Music*. Reno: Euskal Ikasketen Zentroa. Nevadako Unibertsitatea

Egunkarietako artikuluak

Prentsa Historikoaren Liburutegi Digitaletik:

El Eco de Navarra, 1898-02-12

El Eco de Navarra, 1898-06-29

Heraldo de Navarra, 1898-10-14

El Eco de Navarra, 1898-10-16

Heraldo de Navarra, 1898-11-18

El Eco de Navarra, 1898-11-19

El Eco de Navarra, 1899-01-10

El Eco de Navarra, 1899-02-21

El Eco de Navarra, 1899-02-25

El Eco de Navarra, 1899-02-26

El Eco de Navarra, 1899-03-10

El Eco de Navarra, 1899-06-04

El Eco de Navarra, 1899-06-23

El Eco de Navarra, 1899-09-24

El Eco de Navarra, 1900-06-29

El Eco de Navarra, 1900-08-30

El Eco de Navarra, 1900-10-05

El Eco de Navarra, 1901-09-03

El Eco de Navarra, 1901-10-02

La Correspondencia de España, 1902-07-10

El Eco de Navarra, 1903-03-21

El Eco de Navarra, 1903-08-23

El Eco de Navarra, 1903-09-26

El Eco de Navarra, 1904-06-20

El Eco de Navarra, 1904-08-10

El Eco de Navarra, 1904-08-14

El Eco de Navarra, 1904-09-24

El Eco de Navarra, 1904-10-15

El Eco de Navarra, 1905-06-20

El Eco de Navarra, 1905-08-31

El Eco de Navarra, 1906-06-19

El Eco de Navarra, 1906-07-05

El Eco de Navarra, 1906-07-22

El Eco de Navarra, 1907-07-03

El Eco de Navarra, 1908-02-14

El Eco de Navarra, 1908-05-16

El Eco de Navarra, 1908-12-12

El Eco de Navarra, 1909-05-14

El Eco de Navarra, 1909-10-17

El Eco de Navarra, 1910-09-01

El Eco de Navarra, 1911-03-01

El Eco de Navarra, 1911-09-24

El Eco de Navarra, 1911-09-26

El Eco de Navarra, 1911-10-22

El Eco de Navarra, 1911-12-23

El Eco de Navarra, 1912-02-16

El Eco de Navarra, 1912-02-22

El Eco de Navarra, 1913-05-25

El Eco de Navarra, 1913-06-03

Hemeroteka Digitala:

La gran vía, 1895-12-14

El movimiento católico, 1895-12-26

La unión católica, 1897-06-21

El Globo, 1898-06-06

La unión católica, 1898-06-07

La unión católica, 1898-07-04

Bellas Artes, 1898-11-22

El Liberal, 1900-10-20

El Correo Español, 1902-09-23

Concurso musical, 1903-10-07

Interneteko baliabideak

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa – Mendez mende. http://www.mendezmende.org – tik berreskuratua

Atzoko Prentsa Digitala – Gipuzkoako Foru Aldundia. https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAtzokoPrentsaWEB/izenburuAurkibidea.do -tik berreskuratua

Audio grabazioak

Larrea, V. (2021). *Valentín Larrea Yturbe, Gabiriako Kontzertua, hari orkestrarako obra.* Gabiria: Berazadi-Larrea sendia

Iturri pertsonalak

Arakistain, I. (2020). *Elena Berazadi Larreari eta Maite Berazadi Larreari eginiko elkarrizketa.* Donostia, 2020ko martxoaren 3a

Arakistain, I. (2021). Itsaso Aristizabali eginiko elkarrizketa. Irun, 2021eko martxoaren 9a

Eranskin dokumentalak

Eranskina 1: Egileak egindako Valentin Larrearen zuhaitz genealogikoa



Eranskina 2: Valentin Larrearen konposizioen katalogoa

Valentin Larrearen lan gehienak, Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboan aurkitzen dira. Bere funtsean aurkitzen diren lan musikalen zerrenda hartu dut Larrearen katalogoa osatzeko gida moduan:

	Izenburua	Plantilla edo instrumentua	Artxiboko atala
1	Nere etorrera = Mi regreso [arreglo]	Asolo/p	Musika korala
2	Boga, boga, Mariñela [arreglo]	T/T/Br/B	Musika korala
3	Goizeko Izarra	T/T/Br/B	Musika korala
4	Canción primaveral	S/S/T/T/Br/B	Musika korala
5	Goizeko Izarra	T/T/Br/B	Musika korala
6	Boga, boga, Mariñela [arreglo]	T/T/Br/B	Musika korala
7	Euskal Festak	Solos/T/T/Br/B	Musika korala
8	Nere Etorrera = Mi regreso [arreglo]	T/T/Br/B	Musika korala
9	Ordizia	TSolo/T/T/Br/B	Musika korala
10	Eresiak	T/T/Br/B	Musika korala
11	Eresiak	T/T/Br/B	Musika korala
12	Eresiak = Lamentaciones	T/T/Br/B	Musika korala
13	Euskal Mendiyak	TSolo/T/T/Br/B	Musika korala
14	Andante [arreglo]	p	Pianorako musika
15	Andante en Do [arreglo]	p	Pianorako musika
16	Beti aurrera	p	Pianorako musika
17	Capricho Gavota	p	Pianorako musika
18	Capricho Pavana	p	Pianorako musika
19	Capricho-Vals Vienés	p	Pianorako musika
20	Charmant = Encantador	p	Pianorako musika
21	Donostia	p	Pianorako musika
22	Ecos de Andalucía	p	Pianorako musika
23	Evocación vasca	p	Pianorako musika
24	Fandango vasco [arreglo]	p	Pianorako musika
25	Fantasia vasca sobre motivos del Aurresku y el célebre zortziko de Iparraguirre "Guernikako-Arbola"	p	Pianorako musika
26	Geno	p	Pianorako musika
27	Gloria Andaluza	p	Pianorako musika
28	Goiko mendiyan; Nere erri politari	p	Pianorako musika
29	Golfillos	p	Pianorako musika
30	Eriko soñuak	p	Pianorako musika
31	Impromptu en re menor	p	Pianorako musika
32	Intermezzo en Fa	p	Pianorako musika
33	Iruña	p	Pianorako musika
34	Lo - lo [arreglo]	p	Pianorako musika
35	Marcha vasca	p	Pianorako musika
36	Meditación	p	Pianorako musika
37	Minuetto	p	Pianorako musika
38	Nere etorrera = Mi regreso [arreglo]	p	Pianorako musika
39	Novellette [arreglo]	p	Pianorako musika
40	Olimpia	p	Pianorako musika
41	Piccadilly	p	Pianorako musika
42	Prelude-Intermezzo	p	Pianorako musika
43	Preludio Vasco - Clásico	p	Pianorako musika
44	Seis preludios para piano sobre motivos vascos	p	Pianorako musika
45	Preludio Vasco (número 3) [arreglo]	p	Pianorako musika

46	Cuatro preludios para piano inspirados en melodías populares navarras	p	Pianorako musika
47	Preludio Jota nº 4	p	Pianorako musika
48	Melodías populares navarras	V	Pianorako musika
49	Romanze [Romance] en Sol	p	Pianorako musika
50	Serenata Española	p	Pianorako musika
51	Serenata	p	Pianorako musika
52	Valentinito	p	Pianorako musika
53	Vals melódico (en sol menor)	p	Pianorako musika
54	Vals Romántico	p	Pianorako musika
55	Valse Graciense	p	Pianorako musika
56	La Yenca Angabirigo	p	Pianorako musika
57	Bella Easo	p	Pianorako musika
58	Andante en Do mayor	órg	Organorako musika
59	Andante religioso	órg	Organorako musika
60	Elevación y Plegaria	órg	Organorako musika
61	Marcha nupcial	órg	Organorako musika
62	Preludio, Adagio y Fuga	órg	Organorako musika
63	Laurak-bat	sil/sil/sb/ttun/at	Txisturako musika
64	Chistulariyak	tx/tx/sb/at	Txisturako musika
65	Txistulariak	tx/tx/sb/at	Txisturako musika
66	Ensueño	vc/p o vn/p	Ganbera-musika
67	Novelette	vn/p	Ganbera-musika
68	Romanza en Sol	vn/p	Ganbera-musika
69	Serenata española	vn/p	Ganbera-musika
70	Andante en Do	vn/vn/va/vc	Ganbera-musika
71	Capricho vasco	vn/vn/vc/cb/p	Ganbera-musika
72	La Perla del Océano	vns/vc/cb/p	Ganbera-musika
73	1ª Misa	T/T/Br/B/órg	Musika erlijiosoa
74	Ave Maria	Tsolo/órg	Musika erlijiosoa
75	Santiago de Compostela	Co/órg	Musika erlijiosoa
76	O Salutaris	Tsolo/órg	Musika erlijiosoa
77	Motete al Santísimo	Tsolo/órg	Musika erlijiosoa
78	Panis Angelicus	Tsolo/órg	Musika erlijiosoa
79	Villancico al Niño Jesús	T/T/B/órg	Musika erlijiosoa
80	Plegaria a la Virgen del Carmen	Tsolo/Co/órg	Musika erlijiosoa
81	Adagio	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
82	Andante en Do	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
83	Andante en Do mayor	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
84	Minuetto en Re	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
85	Preludio Vasco (número 3)	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
86	Reverie	vn/vn/vc/cb	Musika sinfonikoa
87	Reverie (arreglo)	p	Musika sinfonikoa
88	Canción vasca	vc/p	Zirriborroak
89	Partitura con parte de Piano Concertante	Solos/S/T/Br/p	Zirriborroak
90	Bajo armonizado		Zirriborroak
91	Bajo armonizado		Zirriborroak
92	Bajo armonizado		Zirriborroak
93	Un bajo y una melodía		Zirriborroak
94	Fuga para órgano	órg	Zirriborroak

Lan guzti hauetaz gain, nire ikerketan zehar, gaurdaino ezagutzen ez ziren obren aipamen eta izendapenak aurkitu ditut. Besteak beste, Iruñako Orfeoiak bidalitako inbentarioan, Eresbilen aurkitzen ez diren zenbait obra daude. Bestalde, prentsa errekorteetan, lan desberdinen izenburuak agertzen dira. Kasu askotan, lan hauen jatorria ezezaguna da eta egun non aurki daitezkeen ere ikertu egin beharko litzateke. Valentin Larrearen lan musikalen katalogo eguneratu eta osoa osatzeko lan beharrezkoa da hau. Hona hemen lan horien zerrend

	Lanaren izena	Plantilla edo instrumentua	Non aipatzen den
95	Serenata veneciana	Coro a voces solas	Iruñeko Orfeoiaren inbentarioa
96	Meditación religiosa	Instrumentos de cuera	Iruñako Orfeoiaren inbentarioa
97	Canción: recuerdo a mi querido amigo Remigio Múgica	Música para coro a capella	Iruñako Orfeoiaren inbentarioa
98	Eslava, marcha original	Banda	El Eco de Navarra, 1898-10-16
99	Marcha fúnebre	Piano	El Eco de Navarra, 1899-01-10
100	Marcha triunfal	Oboe y piano	El Eco de Navarra, 1899-06-04
101	Capricho Mazurka		El Eco de Navarra, 1900-06-29
102	Negra sombrea, balada gallega	Música para coro a capella	El Eco de Navarra, 1908-02-14
103	Colección *Sorterri*	Música para coro a capella	El Eco de Navarra, 1910-09-01
104	Suite de valses *Bellas Artes*		*Revista Actualidades*, 1901
105	Coro de niños		El Eco de Navarra, 1906-07-22
106	Romanza	Música para tenor	El Eco de Navarra, 1911-03-01
107	Sonata en tres tiempos	Órgano	El Eco de Navarra, 1911-03-01
108	Intermezzo		El Eco de Navarra, 1911-03-01
109	Andante Cantabile	Sexteto de cuerdas	El Eco de Navarra, 1911-10-22

Eranskina 3: Valentin Larrea Auzmendi

Musika erabat errotua zegoen Txapitela kaleko Valentin eta Teresaren etxean. Aitaren afizio zein ofizio zenari jarraiki, 1901ean jaiotako seme Valentinek ere piano ikasketak hasi zituen bere aitaren eskutik. Ondoren, Felipe Gorritiren ikaslea izan zen Santos Laspiur garaiko piano-jotzailearen ikasle izatera igaro zen. Laspiur bera, Valentin Larrea aitaren lehiakide izan zen Iruñeko Kontserbatorioan irakasle izateko hautaprobetan. Bertan aukeratua ez izateak, eragin handia izan zuen Larrearengan, aise gogoko baitzuen irakasle lana eta kontserbatorioan irakasle postua lortzea berarentzat onuragarri izango zela uste baitzuen. (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 317-320)

8go ilustrazioa: Valentin Larrea Auzmendiren umetako argazkia. Iturria: artxibo familiarra

Euskal-Erria aldizkarian agertzen den artikulu batean irakur dezakegun moduan, adin gutxirekin jada trebezia handiak erakusten zituen tekladun instrumentuan Larrearen seme zaharrenak. 1914an, Casino Eslavan eskainitako kontzertu bati buruzko erreseina egiten da artikulu horretan:

> De tal puede calificarse el joven de trece años Valentin Larrea, hijo del notable pianista y compositor del mismo nombre y apellido, quien siguiendo la senda de su padre, se ha revelado como una notabilidad en el piano hasta el punto de que en los exámenes de la Academia municipal de música, el stribunal acordó concederle el premio extraordinario, que sólo se otorga en casos excepcionales a los alumnos del cuarto curso.
>
> Ejecutando una hermosa obra clásica de Mendelssohn probó en los exámenes ante el tribunal, y ayer noche en el Casino Eslava ante público muy numeroso que le aplaudió, que a pesar de su corta edad conoce a la perfección el tecnicismo musical, que no les es dado dominar a jóvenes de su edad, a nos ser poseyendo condiciones excepcionales que hacen abrigar la esperanza de que está llamado a ser una verdadera notabilidad.

Nos complacemos en felicitarle, así como a su padre y a su profesor, el competente e inteligente pianista D. Santos Laspiur.

Sabemos que en el concierto a que se refiere en las precedentes líneas había numerosa concurrencia, predominando el elemento femenino, que tenía una bella representación. Valentín Larrea chiki ejecutó tranquilo y seguro, como quien está avezado a tocar ante el público, una fantasía de Mendelssohn, y a petición un vals de Chopin. Fueron unánimes los aplausos y las felicitaciones por parte del público, que no cesaba de exteriorizar su admiración ante la portentosa ejecución del precoz artista.

Nosotros nos unimos gustosos al coro general de felicitantes, expresando a su padre, nuestro amigo Larrea, la satisfacción con que nos hemos enterado de los extraordinarios progresos de su hijo. (*Euskal-Erria,* 1914)

*Nuevo Casino Eslava*n eskainitako kontzertu-programari erreparatuz gero, mutikoaren dohaietaz jabetuko gara, bertan interpretatutako lanek duten zailtasun eta konplexutasun maila ez baita ahuntzaren gau erdiko eztula:

PROGRAMA

Primera parte:

1. Estudio núm. 4 (op.10)…Chopin

2. Automne (op. 35)…Chaminade

3. Sonata op. 27, núm.2…Beethoven

a) Adagio sostenuto

b) Allegretto

c) Presto agitato

Segunda parte:

1. Balada núm. 1 (op. 23)…Chopin

2. Fantasie-Impromptu (op. 66)…Chopin

3. Presto de la fantasia (op. 28)…Mendelssohn"

Bere ikasketa ibilbideari jarraipena eman nahian, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen zituen beketara aurkeztu zen Larrearen semea, Parisera joateko intentzioa erakutsiz. Elena Berazadi Larrea bere ilobak dioenez, familia giroan betidanik aipatu izan dira Valentin Larrea Auzmendik beka hori lortzeko izan zituen arazoak, lehiaketa egin aurretik berau jada norbaiti izendatu egon zitekeenaren susmoa baitzuen berak zein bere gertukoek (Berazadi, E., Arakistainen, ll. 410-412). Parisera joateko esperantzak agortuta, Hego Amerikara joatea erabakitzen du bere ibilbide artistikoa landu eta zabaltzera. Hona hemen Argentinara iritsi zenean bertako egunkari batek piano-jotzaileari eginiko ongi etorria:

> Hace seis años, dimos a conocer en estas columnas las brillantes pruebas que en Pamplona, su pueblo nativo, rindiera en su carrera pianística el niño de trece años Valentín de Larrea, hijo del reputado pianista del Casino Eslava, de la vieja Iruña.
>
> Acaba de llegar a esta capital, lleno de ilusiones juveniles, con el propósito de desarrollar en este país sus actividades artísticas.
>
> En un recital privado que tuvo la amabilidad de brindarnos, ejecutó la sonata (op. 27, número 2) Beethoven; Rapsodias 10 y 12 y Liszt; la hermosa Tarantela de Joaquin Larregla y la bellísima página En el Pirineo (Escenas del amanecer) del mismo; Leyenda asturiana de Albeniz y "Capricho Basko" de Sarasate, de sabor puramente euskaro.
>
> Todas esas magníficas obras musicales, las interpretó irreprochablemente, como un verdadero virtuoso, muy posesionado de ellas, y venciendo las grandes dificultades técnicas que encierran algunas de ellas, con la mayor naturalidad, sin aspavientos efectistas, con honradez artística y una elevada comprensión de la naturaleza diversa de tan geniales concepciones. Deseamos al joven artista, encuentre ambiente propicio en este país.

1917ko uztailaren 26ko Iruñeako Udaletxeko akta batek jasotzen du, Valentin Larrea Auzmendik, Sarasate saria jaso zuela, 9. ilustrazioan ikus daitekeen moduan. Piano jotzaile trebeak bere bizimodua Argentinan garatu zuen arren, familiarekin lotura estua izaten jarraitzen du bere alaba Ana María Larreak, 2019an bere aitonaren musika omentzeko eginiko lehen kontzertura etorri zelarik Argentinatik Iruñera. Hona hemen Sarasate sariaren epaimahai akta:


Ayuntamiento Constitucional
- DE -
PAMPLONA
COMISIÓN DE GOBIERNO

Esta Comisión, en sesión celebrada el día 24 del actual, en vista de los ejercicios de oposición al premio "SARASATE" practicados por V. el día 23 del mismo mes y del informe emitido por el Claustro de Sres. Profesores de la Academia Municipal de Música clasificando el resultado de los mismos, acordó adjudicarle a V. dicho premio por unanimidad, debiendo hacerle presente que para su percibo deberá sujetarse, por ser menor de edad, a lo que previenen las bases establecidas al efecto, es decir, que le será entregada desde luego la cuarta parte del importe total y el resto a sus padres, para destinar exclusivamente en beneficio de V.

Lo que en cumplimiento -

9go ilustrazioa: Sarasate sariaren epaimahaiaren akta. 1917ko uztarilaren 26a. Iturria: artxibo familiarra

> Esta comisión, en sesión celebrada el día 24 del actual, en vista de los ejercicios de oposición al premio «SARASATE» practicados por V. el día 23 del mismo mes y del informe emitido por el claustro de Sres. Profesores de la Academia Municipal de Música clasificando el resultado de los mismo, acordó adjudicarle a V. dicho premio por unanimidad, debiendo hacerle presente que para su percibo deberá sujetarse, por ser menor de edad, a lo que previene las bases establecidas al efecto, es decir, que le será entregada desde luego la cuarta parte del importe total y el resto a sus padres, para destinar exclusivamente en beneficio de V.
>
> Lo que en cumplimiento del acuerdo adoptado participo a V. para su conocimiento y satisfacción.
>
> Dios guarde a V. muchos años.
>
> Pamplona, 26 de julio de 1917
>
> EL PRESIDENTE

Valentin Larrea Auzmendiren familiak aitona Valentinen musika argitara ateratzeko prozesua pozez bizi du eta lan hau zabaltzerako orduan, beraien testigantzak jasotzea ere interesgarria izan daiteke.